

Goienkaria

2007ko abenduaren 5a > Egubakoitzza > VII. urtea > 312. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

Debagoieneko
liburu eta diskoak
Durangon > 25-26

TURISMOA

Debagoieneko turismo bulegoek
eskaintza zabala dute zubirako > 04

JOKIN ZAITEGI ITZULPEN SARIKETA

Iazko Nobel sariudun Orhan Pamuken
itzulpena kaleratu dute > 13

Jose Luis Elkoro

18/98 sumarioan
auzipetua > 07



KIROLA

Bolinaga eta Mendizabal DV pilota
finalerdian izango dira bihar > 24

KONTSUMOA > GABONETAKO GASTUAK

Europan gehien gastatzen dutenen artean gaude debagoiendarrok

1.000 EURO Horixe da EAEko familia bakoitzak Gabonetako erosketetan batez beste gastatuko duena

EROSKETA SASKIA 400 bat euro gastatuko ditugu elikagai zein edaritan; erosketa beragatik iaz baino %8 gehiago

DEBAGOIENA Gure bailara gehien gastatzen duen artean dago, 'per capita' errenta handienetako duelako > 02-03

KIROLA > HERRI LASTERKETA

oñatikoa, Euskadiko proba onena

Halaxe izendatu du Oñatiko herri lasterketa Espaniako Federazioak > 24

OSASUNA > GINEKOLOGIA

Otalora, ginekologoen presidente

Euskadiko Ginekologia Elkar-teak aurreko astean egindako kongresuan, Alfredo Otalora elkarteko presidente aukeratu zuten. Otalorak Arrasateko Consultorio Ginecologicoan dihardu lanean, besteak beste. Jose Ramon Serrano Debagoieneko ospitaleko ginekologiako burua ere zuzendari-zako kide izendatu dute. > 04

MUSIKA > AKORDEOIA

Akordeoi lehiaketa Arrasaten

Bihartik domekara bitartean munduko akordeoilari onenak batuko dira > 09

Hitzarmena sinatu
dute Arrasateko
San Josepeko
harrobia
berreskuratzeko

Atzo, martitzena, sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Foru Aldundiak Donostian. Hitzarmen horren helburua da San Josepeko harrobia ingurumen aldetik berreskuratzea, eta horretarako idea lehiaketa egin nahi dute han zer egin daitekeen jakiteko.

Hala, lehiaketa finantzazko 36.000 euro jarriko ditu Aldundiak eta Arrasateko Udalak beste 18.000. > 12



SINADURA Arantza Tapia, Carlos Ormazabal eta Ino Galparsoro hitzarmena sinatzen.

GOIENKARIA

AURKIBIDEA

Asteko gaia > 02-03

Debagoiena > 04

Elkarrizketa > 07

Gutunak > 06

Herriak > 09-23

Kirola > 24

Gazteak > 27

Sailkatuak > 28

Eskelak > 29

Telebista-Irratia > 30

Non-zer > 31

ION LEIHOAK
P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

www.ventaion.com ion.a@euskalnet.net

• LEIHOAK
• ATEAK
• TARIMAK ETA PARKETA
• ZOLUAK

Debagoiena industrialdea, 11. pab. Uribarri auzoa (Markulete ondoan) ARRASATE
Tel.: 943 79 11 35

Ford Mondeo berria
Mugarrir Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDARAGÓN
Feel the difference

GABONAK > JOAN DEN URTEKOAK BAINO GARESTIAGOAK

Gabonetan gehien gastatzen dutenen artean gaude debagoiendarrok

BATEZ BESTE, MILA EURO

Familia bakoitzak, batez beste, mila euro gastatuko ditu EAEn Gabonetan, eta erdia erosketa saskia betetzeko izango da

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gabonak gertu daude eta dagoneko ospakizun horietarako erosketak egiten hasi gara ibarrean. Eta bada jende asko oraindik erosoi beharreko zerrenda egin barik duena. Edozelan ere, jakin beharra dago aurtengo gastuek nabarmen egingo dutela gora.

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak (EKE) EAEko familia bakoitzak guztira mila euro inguru gastatuko dituela aurreikusi du. Alegia, joan den urtean baino %7 gehiago. Debagoiendarrok, gainera, Europan gehien gastatzen dutenen artean gaudela azpimarratu du.

EAEko biztanleok Gabonetan egingo dugun gastuaren erdia janari eta edariendako izango dela

jakinarazi du. Hala, 400 euro inguru gastatuko ditugu Gabonetako ohiko produktuak erosten. Erosketetarako saskia batez beste %8 beragatik %8 gehiago ordaindu beharko dugu aurtengo Gabonetan

Zati handienetako arraina eta itsaskiak erosteko erabiliko da; izan ere, batez beste, 150 euro utziko ditu familia bakoitzak arrandegian.

BISIGUA, 40 EUROTAN

Ariñok gomendatu du arraina Gabonen aurretik erostea, azken egunetarako utziz gero arrainedo itsaski beragatik %30 gehiago ordainduko beharko da-eta. Adibide gisa bisigua jarri du. Azaroaren hasieran kiloa 18 eurotan zegoen. Handik aste bira zor-

IGOERA NABARMENA Joan den urteko erosketa saski beragatik %8 gehiago ordaindu beharko dugu aurtengo Gabonetan

400 EURO Ohiko produktuak

erosteko 400 euro inguru bideratuko ditugu, hala nola itsaskiak, arraina, okela, hestebeteak eta gozoak

tzi euro igo zen eta joan den egunean 34,5 euro balio zuen kilo bakoitzak. Hilabetean ia bikoiztu egin da produktu horren prezioa. Kontuan hartu behar da, horren harira, oraindik hiru aste falta direla Gabonetarako eta, beraz, prezioa nabarmen igoko dela. Bisigua 40 euro balio izatera hel daiteke. Eta, hain zuzen ere, etxe askotan ezin izango dute aurten arrain preziatu hori probatu.

Aurrekontua murriztu egin daitekeela aipatu du Ariñok, menurako beste arrain mota batzuk aukeratuta. Legatza eta lupia, esaterako, bisigua baino merkeagoa da, baita data esan-guratsu horietan ere. Izokina, berriz, bederatzi eurotan dago.



TURROIAK, MAZAPANAK ETA POLBOROIETAK Debagoienetan gehien gastatzen dutenen artean gaude debagoiendarrok

ELKARRIZKETA

Jon Ariño > Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko presidente

"Behar duguna baino gehiago erosten dugu, bereziki jakiak eta opariak"

M.B. > BERGARA

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko presidente Jon Ariñoren ustez, behar duguna baino askoz gehiago erosten dugu Gabonetan. Hala, zentzuz erosteko eta gastuak murrizteko ematen diren gomendioak kontuan izateko dei egiten du.

Euskal Herriko Estatuan baino gehiago gastatzen dugu Gabonetan?

Bai, hala da. Espainiako Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, hemen %20 inguru gehiago gastatzen dugu. Kontuan hartu behar da per capita errenta handienetarikoa dugula eta horrek Gabonetan diru gehiago gastatzeko aukera ematen diela herritarrei.

Eta Europarekin alderatuta? Diru gehiago bideratzen al dugu?

Per capita errenta askoz handiago duten Europako herrialde askoren gainetik gaude EAEn. Bainan aldea ez da bakarrik faktore ekonomikoengatik ematen; kultura kontua ere bada.

Euskal Herriko toki batzuetan beste batzuetan baino gehiago gastatzen da. Non dago kokatuta Debagoien?

Eskualde bakoitzaren arlo sozio-ekonomikoak zerikusi zuzen du horretan. Debagoieneko maila ertain-altaua da, eta, beraz, gehien gastatzen duen eskualdeetako bat da. Bizkaiko Txori Herrin eta Gasteizen duten egoerarekin aldera daiteke.

Zer nolako produktuekin betetzen ditugu Gabonetan erosketen saskiak?

Langostinoak, almejak, zigalak eta halako itsaskiak aukeratzen ditugu bereziki; arrainen, berri, bisigua, bakkailaoa eta lupia eskatzen dugu. Eta okelatan, arkumea eta solomilloa gustuko dugu. Iberikoak eta foiea ere ez da faltatzen egun esanguratsu horietan mahai gainean. Edateko, berri, kalitatezko ardoekin betetzen dugu saskia. Erreserbak eros-teko joera izaten dugu Gabonetan.

Behar duguna baino gehiago erosten dugu?

Bai, hala da. Gaur egun larregi erosten dugu, bereziki jakiak eta opariak. Azken horren harira, kontuan hartu



Iruñean, Jon Ariño.

behar da Euskal Herriko Olentzero eta Erregeak egiteko ohitura dagoela. Jostailu eta oparietako gastua bikoizten da modu horretan. Europan, berri, opari bakarra egiten dute eta, horretan, hemen baino diru gutxago gastatzen dute. Opari merkeagoak egiten dituzte.

Okelatan ere diru asko joango da. Ariñok adierazi duenez, azken urteetan nahiko egonkor mantendu dira okelen prezioak, ez dira askorik igo orain arte. Baina aurten pentsuak garestitu egin direla-eta, hori poltsikoe-tan igarriko dela azpimarratu du EKEko presidenteak. Hala, 100 euro inguru gastatuko dituzte herritarrek horretan.

ARKUMEA ETA SOLOMILLOA

Izar-produktuak esneko arkumea eta solomilloa izango dira aurten ere. Azken horren harira, idi-solomilloa izango da eskatuena. Orain arte %15 inguru igo dela eta Gabonak bitartean igoera %20koa izatera irits daitekeela ohartarazi du. Hortaz, kilo bakoitzak 35 euro balio dezake Gabonen atarian.

Arrain, itsaski eta okelaz gainera, baina, bestelako produktuak kontsumitzeko ohitura ere badago gurean. Hain zuzen ere, hestebeteak eta foiea EAEko bizilagunen gustukoak dira, eta horrelako produktue-



Biendar gehienak pasako dira datozen asteetan turroiak, polboroiak, mazapanak eta bestelako gozoak dauden apaletatik. Dendetan prest dituzte, dagoeneko.

M.B.

tan batez beste 45 euro gastatuko dituztela aurreikusi du EKEKO presidenteak.

Gainera, Gabon gauko eta Gabon zaharreko afari ederrek edari onez lagunduta joan behar dute. Aurten, 45 euro bideratuko dira ardoa eta cava erostera. Aurreikuspena baino ez da, kopuru hori nabarmen igo daiteke-eta erreserbak aukeratuz gero.

Eta gozoak ere ez dira faltako mahai gainean. Turroiak, polboroiak, mazapanak eta bonboiak jartzeko oihura dago ibarrean, intxaur-saltsa goxoa jan ostean. Orokorean, familia bakoitzak 60 euro gastatuko ditu arlo horretan.

Esandako 400 euro horietan, arraina, okela, hestebeteak eta patea, edariak eta gozoak baino ez dira sartzen, baina horien osa-

garri diren jakia gehitu behar zaizkio kopuru horri. Adibide gisa ogia aipa daiteke, aurten igoera nabarmena izan duen oinarritzko produktua.

OPARIAK ETA JOSTAILUAK

Hala ere, guztia ez da jana: opari eta jostailuetan gero eta gehiago gastatzen dugu. Gastua joan den urtekoaren antzekoa izango da:

260 euro inguru. Osagai elektronikodun jostailuak oparituz gero, kopuru hori handitu egin daitekeela ohartarazi du Ariñok.

Horri guztiak loterian familiako gastatzen ditugun 120 euro inguru eta ospakizunetako beste 120 euro gehitu behar zaizkio. Azken horretan ez da kontuan hartzen, azkenaldian, urte amaiera etxetik kanpo ospatzea.

Batzuek jatetxeetan ematen diote ongierroria urte berriari; beste batzuek, berriz, bidaiatzea nahiago izaten dute, hala nola eskiatza joatea. Halako zerbaiztutu edo hirukoiztu egin daitezke.

Datu horiek guztiak eman ostean, "zurrumbilo kontsumista horien hatzparretan" ez erortzeko dei egin du Ariñok.



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaellevator@omegaellevator.com

SSANGYONG RODIUS BERRIA

22.900 €-tik aurrera

MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU
ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN
270 XDI 165 ZP

SSANGYONG
VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

EROSTEKO GOMENDIOAK

> EROSKETAK AURRETIK EGIN

Aurrerapena eta aurreikuspena dira prezioen gorakadari aurre egiteko modurik eraginkorrenak. Hala, erosketak aurrerapen handiz egitea gomendatzen du Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak.

Horrela eginez gero, azken egunetan prezioek izaten duten igoerak ez du eraginik izango poltsikoetan.

> ESKAITZAK APROBETXATU

Eskaintza bereziak aprobetxatzeko dei ere egiten du elkargoak. Erosketak apurka egin behar dira, ez dira denak bat-batean egin behar.

Supermerkatu kate bakoitzak ateratzen dituen eskaintza bereziei adi egon beharra dago, horiek aprobetxatzuz diru asko aurrez daiteke-eta.

> MENURAKO ALTERNATIBAK

Gehien eskatzen diren produktuek izaten dute igoera handiena. Horregatik, Gabonetako bazkari eta afarietako ohiko platerik ez prestatzea proposatzen du. Menurako alternatibak bilatu behar dira.

> IRAUNGITZE-DATA BEGIRATU

Erosketen fakturak ondo begiratu behar dira, eta iraungitze-datan arreta berezia jarri.

> ORDAINAGIRIAK GORDE

Ondasun iraunkorrak erosterakoen, ordainagiria eta zigilatutako bermea gorde behar dira.

> BIDEZKO DENDETAN EROSI

Bidezko merkataritzako dendetara jitzeko dei egiten du. Onura sozialak eskaintzen dituzte horiek eta, horrez gain, opari bat egiteko alternatiba ezin hobea izan daiteke.

> ARBITRAJE SISTEMARI ATXIKIA

Arau orokor gisa, erosketak Euskal Jaurlaritzaren arbitraje sistemari atxikita dauden saltokietan erosi.

OSASUNA > GINEKOLOGIA

Otalora, Euskadiko Ginekologia Elkarteko presidente berria

Jose Ramon Serrano eskualdeko ospitaleko ginekologiako burua ere zuzendaritzako kide da

Aurreko astean egin zuen kongresua Euskadiko Ginekologia eta Obstetricia Elkarteak, Bilbon

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Aurreko astean aukeratu zuen Euskadiko Ginekologia eta Obstetricia Elkarteak zuzendaritza batzorde berria, Bilbon egindako kongresuan. Han erabakita koaren ondorioz, Alfredo Otañora ginekologoa izango da elkarteko presidente datorren lau urteetan. Kargu hori duen lehen-

dabiziko gipuzkoarra da. Aho batez hartu zuen elkartearren batzar orokorrak Otañoraren hau tagaitzaren aldeko erabakia. Aurrerantzean, Espainiako Ginekologia eta Obstetricia elkarteko kide ere izango da Otañora.

Argentinarrar da Otañora, baina familia euskaldunekoa; Aretxabaletakoak ziren haren arba-



OTALORA Ginekologoa, konsultantea.

logico zentroan eta Donostia Poliklinikan dihardu ginekologo lanean.

Zuzendaritza batzorde berriko beste kide bat ere Debagoienekoa da, Jose Ramon Serrano, hain zuzen ere. Serrano eskualdeko ospitaleko ginekologiako burua da.

500 GINEKOLOGO

Euskadiko Ginekologia eta Obstetricia elkartearren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 500 bat ginekologo eta obstetra batzen ditu. Elkarre horrek, besteak beste, jarduera zientifikoa eta ikerketa bultzatzen ditu, ginekologiaren eta obstetriciaren alorrean.

AHT > HILAREN 14AN ETA 15EAN

Debagoieneko gazte asanbladek AHTren aurkako ekimenetara joateko dei egin dute

Abenduaren 14an mobilizazioak izango dira ibarreko herrietan, 19:00etan, eta ondoren hitzaldia egongo da Arrasaten; hilaren 15ean, berriz, manifestazio nazionala deitura dago Arrasaten

M.A./M.B. > ARRASATE
Debagoieneko gazte asanbladek Abiadura Handiko Trenaren aurka egingo diren ekimenetan parte hartzeko dei egin dio gazteriari. Hilaren 14 eta 15erako prestatu diren ekitaldien berri eman dute gazte asanbladak astelehenean.

Abenduaren 14an, 19:00etan, Debagoieneko herrietako plazetan mobilizazioak egingo dituzte eta ondoren, 21:30ean, batera-



ARRASATEKO GAZTETXEAN Gazte Asanbladakoek agerraldia egin zuten astelehenean Arrasateko gaztetxean. MIREN ARREGI

tza egingo dute Arrasaten. Horren ondoren, hango gaztetxeen hitzaldia egingo dute. Bada,urrengo egunean, hilak 15, azpiegitura horren kontra Arra-

saten deituta dagoen manifestazio nazionalean parte hartzeko gonbita egin du gazte asanbladek. AHT Gelditu Elkarlanak taldeak antolatu duen manifestazioa

Herriko Plazatik abiatuko da, 17:00etan. Gero, kontzertuak eta bertsolariak entzuteko aukera izango dute gaztetxera joaten direnek.

Hainbat herritarrek egin zuten bat EUDEL-en deiarekin

Joan den astelehenean Euskadiko Udal Elkartea (EUDEL) ETaren atentatua gaitzesteko deitutako kontzentrazio-deiak erantzuten hainbat lagun batu ziren Bergara, Arrasate eta Oñatioko udallexken aurrean. Ordu laurdeneko elkarretaratzen isila egin zuten herriotan batutakoek.



JASONE ZABALA



Gerlari Handia

GERLARI HANDIA

Testua: Pello Anorga

Marrazkiak: Jokin Mitxelena

-5/7 urtekoentzat-

[...] beti gerla guztiak irabazten zituen Gerlari Handia. Ezpata zorrotza atera eta oihukatu zuen: "Barrabilarik baldin badauzak, azal hadi nire ondora!" [...]

Zer gertatuko den jakin nahi baduzu, eskatu Olentzerori liburua.



Debagoineneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

URIARTE SANTOS FERNANDO

Oñati / Atzeko kale 6, behea / 943 78 24 89

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarraiai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA AÑE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintza 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinalete 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

GINEKOLOGIA

RODRIGUEZ SANTOS JAVIER

Oñati / Atzeko kale 6, behea / 943 78 24 89

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirodegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarraiai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGINONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NERA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Argudio "zaharrak" gaur egungo gaiarentzat

Piter Encinas

(Debagoieneko Zutik)
Arrasate

Hasi nahi dugu esanez politika "lanbidetza" duten batzuen azalpenekin ez gaudela ados. Gizarte mugimenduei beti proposamen guztien aurka gaudela leporatzen digute, eta hori ez da egia. Egia da beraiek egindako makro proiektu gehienekin aurka gaudela, baina gu naturaren alde gaude, mundu benetan iraunkor baten alde, ibaiak bizirik egotearen alde, itsasoak, ozeanoak eta airea kutsadurari gabe egotearen alde, nekazaritzarik ekologikoaren alde eta beste mila gauzaren alde.

Beharren araberako garraio politikaren alde ere bagaude, baina ez politikako "espezialista" batzuen eskrupulurik gabeko ideien eta ezkutuko interes ekonomikoaren alde.

Uste dugu tren "soziala" delako dela egungo garraiobiderik onena. Garbi dago herri eta hiriak lotuko dituen garraioari buruz ari garela, eta ez hiriek edo gertu samar dauden herriak lotzeko ibilbide laburrek behar dituztenei buruzkoak; bestela metroari edo tranbiari buruz hitz egingo genuke.

Trenak autopistak baino kalte gutxiago egiten du, automobilek gasolina "erretzean" CO₂ isurtzen baitute. Horrek negutegi efektua handitu eta planetaren bero-tzea eragiten du, gure zoritxarrerako. AHTrekin alderatuz gero, arrazoi gehiago daude ohiko trenaren alde egoteko eta AHT delako munstroaren aurka egoteko.

AHTren aurka gaudela esaten dugu, ez baititu herriak gerturatzentz, ezta pertsonak ere. AHTren aurka gaude milioika metro koadro baso, zelai, etab. galduko direlako. AHT ez da lehen sektorearen aliaturik onena; izan ere, hamaika baserri desagerrara-ziko eta makina bat baserritar hondamendira eramango ditu. Gainera, proiektu faraoniko horrek gure inguruko paisaiei ez die batere mesederik egingo.

Proiektu hain garesti horrek nori egingo dio on? Gure ustez, harrobi-enprese-i, eraikuntza-enpresei, bankariei, politikoei, seguritasun-enpresei eta antzekoei.

Proiektu horretan erabiliko den dirua etxebizitzetarako, kulturarako, osasun-zerbitzuetarako eta abarrerako erabili

daiteke. Ez badakite non inbertitu -ez da izango beharrak ez dagoelako, askoren zorigaitzerako-, galde diezagutela guri, ideia ugari ditugu eta.

Arrazoi gehiago ditugun arren, beste bat baino ez dizuegu emango: guztiz sinesten dugu abiadura handia eta askatasuna ez datozena bat. Leku batera 15 minuto lehenago heltzeak ez du eztertarako balio. Bizitza lasaiak, presarik gabekoak, balio handiagoa du, eta osasuntsuagoa da. Estresatura, kezkatuta... ibiltzeak ez garamatzza inora.

Politikari profesionalek komunikabideetan energia aurrezeari, iraunkortasunari eta abarri buruz hitz egiten dute, baina aldi berean munstro hori inposatu nahi digute. Gure ustez, zentzugebekeria itzela da hori; izan ere, denok dakigu AHTk tren konbentzionalak baino potentzia eta energia-gastu handiagoa duela.

Horregatik esaldi positibo batekin amaitu nahi dugu, bai tren sozialari.

Oharra: Arrasaten abenduaren 15ean arratsaldeko 17:00etan egingo den manifestazioa gonbidatu nahi zaituztegu. Oso garrantzitsua da ahalegintxo bat egitea ahalik eta manifestaziorik handiena egiteko, eta gure hitza, mezua, ozen helarazteko, kasu egin diezaguten.

Gaztetxari bizitzia

Itsaso Azkargorta

(Antzuolako Gazte Asanblada)
Antzuola

Herri batzuetan gaztetxe bat edukitzeko dabitz burrukan. Antzuolan, berri, gaztetxari bizitzia emuteko gabitz burrukan.

Badira urte pare bat lokal bat gaztio topaleku bezela egokittu giñuala, baña gorabehera asko izan dittu eta denboralditxuak be emun dittu itxitta. Bagare talde bat lokal hori gaztetxe bat izeteko egokitzen ibili garenak eta gure ustez badauka gaztetxia izeteko bihar diran oinarritzko gauzak. Kontua da gehixenok berrixak garela. Ez gatoz aurreko gaztetxetik. Ez dakigu zelako dinamikia zeukan.

Nahiz eta ahalegiñak egin, ez dugu lortzen gaztetxari nahiko giñuan bizitzia emutia. Itxuria danez, Antzuolako gaztio artian ez da ikusten gaztetxe baten bihar haundi-rik, baña guk be ez du lan gehixegirik egin jendiak bihar

hori sentitzeko.

Ekintzak antolatu izan dittugu eta beti lagun talde berdiña juntau izen gara, eta, nahiz eta guk edarki pasatu jende gehixago ez etortzian motibaziñua galtzen jun gara.

Ixa urtero egin izan dugu inaugurazio antzeko zeoze, baña oingo honetan gauzak beste modu batera egin nahi dittugu. Hasteko, herritarrei argi laga nahi jeu Kalebarren dagon lokala ez dala lokala, gaztetxe bat dala eta edozeñek sartu ahal dabela.

Ekintza batzuk aurreikusita dauzkagu, baña horrek bururu aurretik (eta betiko pertsonak etorri aurretik), berriz be zerotik hastia pentsatu dogu. Hortarako, inaugurazio moduko bat egitteketan gaude eta espero dugu azkena izatia.

Minbizia

Enrike Letona

(Arrasateko Ezker Abertzalea)
Bergara

Guretzat garrantzitsua den norbaitek minbizia duela jakiten badugu, ikaratu egiten gara, beldurra izaten da lehen erreakzioa, blokeoa, baina, gero, animuak ematen dizkiogu, laguntasuna eskaintzen diogu eta berarekin batera borrokatzeko prest agertzen gara. Eta hori ez badugu egiten ez gara lagun onak. Badakigu egoera txarretan jakiten dugula gure gertukoak egiazki lagunak diren edo soilik ezagunak.

Guri bizia eman digunak minbizia du. Ez dakit guztiok daukagun horren berri, jakin beharko genuke gutxienez. Batzuek begiak ixten dituzte; beste batzuek belarriak; beste batzuek gai hauei buruz ez dute hitz egiten. Gero eta erosoago bizi nahi dugu eta ez gara konturatzen gure erosotasunak beste batzuei kaltea dakarkiela eta etorkizunerako ereiten ari garela.

Lurrari buruz ari gara, jakina. Amazonas basoan zuhaitzak suntsitzen badituzte eskandalagarria iruditzen zaigu, baina AHTrekin 2.500 hektarea, gehienak nekazaritzarik lurrik, suntsituz gero lasai asko gelditzen gara, eta hori gure herriak nekazarri lur gutxi dituela. Tren mota honek tren arruntak baino 6 aldiz gehiago kontsumitzen du eta energia kopuru handi hori sortu egin behar da dituen ondorio negatiboekin, adibidez, zentral nuklearrak eraikitzea bultzatuz. Proiektu erraldoi honek 10.000 miloi euroko aurrekontua du, baina beste proiektu askotan bezala, errealtitatetik oso urrun geldituko dira

estimazioak. Eta Bermejo doktoreak bere txostenean azpimarratzen du inoiz ez dela amortizagarria izango eta etengabe diru publiko beharra izango duela. Honekin bermatzen da aberatsentzat diru publikoa egongo dela, zerbitzu sozialak murriztuz. Izan ere, multinacionaletatik bultzatutako proiektua da. Hainbat aberats aberatsagoak izango dira. Beren lantegietan egiten dituzten produktuak hamar minutu lehenago iritsiko dira merkatura. Tarteka, geu ere bidaia luze bat egiterakoan ordubete irabazik dugu, baina Euskal Herriko trafikoa ez da murriztuko. Beno gezurretan ari naiz, %0,15 murriztuko baita. Ez al da hobe Euskal Herriko herri guztietan geldituko den trenbide modernoa egitea dagoen azpiegitura baliatuz? Orduan bai egongo lirateke aukerak autoak bideetatik kentzeko, eta ekologia ikuspuntutik oso mesedegaria izango litzateke.

Zer ekartzen die Euskal Herri eta bertako herrirei proiektu honek? Zein mundu mota utzi nahi diegu gure atzetik etorriko direnei? Garaia da behin betikoz gure seme-alabengan pentsatzen hasteko. Lurrik bere kontserbazio sistemak ditu, baina aurrerapenaren izenean dagoeneko apurtu egin ditugu eta zientifikoek zalantzaran jartzen dute dagoeneko sendatzeko gaitasuna izango ote duen, neurri zorrotzak ez badira jartzen. Eta hala eta guztiz ere, horrelako proiektuak imposatzen dizkigute eta isilik mantendu nahi gaituzte. Izan ere, zein aukera eskaintzen digute gure iritzia plazartzeko, herri kontsultak ere debekatzen dituztenean...

Abenduaren 15ean aukera izango dugu Arrasaten proiektu honi ezetz esateko. Egin dezagun manifestazio jendetza proiektu hau gelditzeko. Minbizia senda daiteke beti ere oso garatua ez baldin badago. Ez gelditu isilik. Lurrik eta Euskal Herriak zure ahalegina merezi du.

Euskara, komunikazioa, enpatia

Natalia Yamina Bortolotto

Bergara

Nahikoa zaila da lerro biren bitartez nire iritzia ematea, niretzat euskarari buruz hitz egitea ez baita hizkuntza batu buruz hitz egitea soilik, bada baita herri baten historia, kultura, politikaz hitz egitea ere, edo aintzat hartzea,

behintzat. Dena den, saiatuko naiz, zehaztasun gehiegitan sartu gabe eta minberatasunik sortu gabe.

Euskal Herrira heldu nintzenean, orain 3 urte, ez nuen honetaz guztiaz ezer ulertzen. Niretzat hizkuntza ahsokaera zen, Argentinan zerbaite oso zaila gertatzen zaigunean esaten dugun bezala (oinarrizko txinera *chino básico*). Mobida politikoa ere nire ulermenetik oso urrun zegoen, baina gure herriko abesti batek dioen bezala, "historia irabazten dutenek idazten badute, horrek esan nahi du badagoela beste historia bat", eta hori da, hain zuzen ere, arakatzea erabaki nuena, edo ahalegintza, behintzat.

Urte hauen buruan, politikopoliki hizkuntza ulertzen hasi nintzen, eta berarekin dakkaren guztia... Orain esan dezaket talde bat euskaraz hitz egiten aurkitzen dudanean, elkarriketak nondik nora doazen antzematen dudala eta esan dezaket, baita, ulertzen dudala Euskal Herriak jasan behar izan duen guztia, bere etengabeko borroka hain zaharra den hizkuntza mantentzearren. Ulertzen dut, nahiz eta batzuetan konpartitu ez. Badakit euskaraz Euskal Herriaren identitatearen zati dela, baina... hain globalizatua dagoen mundu batean bizirik, nahikoa al da euskara bakarrik jakitea komunikatu ahal izateko? Nik zera esango nuke euskara beharrezko hizkuntza dela, Euskal Herria bezalako herri baten kulturan integratzeko eta berau ulertzeko, baina hizkuntza hau bakarrik ezagutzea ez da nahikoa, ez euskaldunontzat, ezta etorkinentzat ere, gizakien arteko harremanak asko mugatzen baititu. Eta hortik datorkit ondoko galdera: Zer da garrantzitsuagoa, komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza ala komunikazioa bera? Zerk du balore handiagoa, hizkuntza konkretu bat ikastea ala komunikatzen ikastea, honek berarekin dakkaren hitzezko nahi ez-hitzeko komunikazioa ikastea? Beharbada, erantzuna honen guztiaren arteko nahasketat bat izango da... Batez ere, enpatia azpimarratuko nuke, berari esker komunikazioa eramangarriagoa, errazagoa eta aberatsagoa suertatzen baita.

Laburbilduz esango nuke zoragarria eta oso garrantzitsua iruditzen zaidala ikasturte honetatik aurrera etorkinei hizkuntza hau ikasteko eskaintzen zaizkigun dohaineko aukera, integrazioan lan egitea baita, baina ez nago ados euskara Euskadiko komunikazio tresna bakarra bihurtu nahi dutenekin.



Joan den egubakoitzean 18/98 sumarioko 46 auzipetu atxilotzen hasi zen Guardia Zibila eta

Polizia Nazionala. Ibarrean, Natale Landa arrasatearra atxilotu zuten egun hartan. Zapatuan,

berriz, Xabier Arregi bergarra. Bada, Jose Luis Elkorok etxejarraitzen zuen martitze-

nean, erredakzioa ixterakoan. Harekin izangara azken egunak nola pasa dituen jakiteko.

Jose Luis Elkoro > 18/98 sumarioan auzipetua

"Hau guztiau borroka baten ondorioa da, eta horrek ematen dit niri indarra"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako etxeen lasai eta familiaz ingurutua aurkitu genuen astelehen eguerdian Jose Luis Elkoro. 18/98 sumarioagatik dago auzipetua, Orain atalaren barruan. Azken egunak lasai igaro dituela jakinarazi du, "momentu batetik bestera helduko direla pentsatzen". 18/98 auziaz eta Euskal Herriko egoeraz berba egin dugu bergararrarekin.

Lehenengo eta behin, zelan zaudet?

Ondo nago. Hiru egun daramat [astelehena zen] dagoeneko zain, noiz etorriko diren erameteko. Pentsatzen nuen urduri egongo nintzela, baina oso lasai nago. Lagun asko etorri dira etxera bisitan eta animuak ematen dizkidate. Lasaitasun osoz pasa ditut egunak. Orain ere oso lasai nago.

Hiru egun pasa dira dagoeneko atxiloketak hasi zirennetik eta itxoiten jarraitzen duzu. Nola uler daiteke hori?

Nik dakidanez bi baino ez gara geratzen atxilotzeke: Segurako Inma Berriozabal eta ni neu. Ez dakit zergatik gauden oraindik kanpoan. Joan den egubakoitzean ez nintzen etxeen egon, kanpoan izan nintzen. Etxera bi bider etorri ziren nire bila eta ez ninduten aurkitu. Ordutik hona etxeen egon naiz eta ez dira etorri. Kalean, etxe inguruan, ibiltzen direla jakin badakigu, baina oraindik ez dira etorri nire bila. Zergatik den ez dakit.

Etxera noiz joango diren zain zaudet, beraz...

Hala da. Eurek jakingo dute zer estrategia duten, zer duten pentsatuta eta noiz etorriko diren bila. Ni zain nago, momentu batetik bestera helduko direla pentsatzen dut. Bada, oso lasai nago, badakit-eta nora noan, zer dudan ikusteko eta baita zer egoeratan egongo naizen ere. Horrek lasaitasun handia ematen dit.

72 urte dituzu eta epaileak 18 urteko kartzela zigorra ezaurre dizula zabaldu da... Nola zaudet animu aldetik?

Ondo. Badakit zigorra gogorra dela eta ez dudala beteko, daukanan adinarekin ez dut iraungo-eta. Bada ni lasai egoteko besa arrazoi bat dago: hau guztiau borroka baten ondorioa da, eta horrek ematen dit niri indarra. Urte asko daramat borroka batean gure herria askatzeko. Egoera oso latzak eta larriak igaro



Jose Luis Elkoro bergararra astelehen eguerdian, bere etxeko egongelan.

MIRIAN BITERI

ditut urte horietan. Bainak dauzkagun helburuak oso garrantzitsuak dira Euskal Herriarentzako eta etorkizunerako. Gero, gure inguruan dagoen indarrak ere asko laguntzen dit borroka honeitan indartsu jarraitzen.

Zer balorazio egiten duzu atxiloketa hauen, epaiketaren eta, azken finean, prozesu guztien gainean?

Gauza bat dago argi: interes politiko batzuen araberako epaiketa dela. Epaiketa guztian ez da egon kasu bat bera ere auzipetuen karguak demonstratzeko aukera eman duena. Ez dute demonstratu kargu bat bera ere. Gezur hutsa erabili dute. Elementu etikoak eta profesionalak gainditu dituzte beste asmo batzuekin. Euren asmoa da gu zigortzea. Momentuan politikoki interesatzen zaie, hauteskunde garaian gaude-eta. Horren arabera jokatzen ari dira: gu zenbat eta gehiago zigortu, orduan eta bodo gehiago jasotzen dituzte. Horrekin bal-

LASAITASUNA

"Oso lasai nago, badakit-eta nora noan, zer dudan ikusteko eta zer egoeratan egon naizen"

HELBURUAK

"Egoera oso latzak eta larriak igaro ditut urteotan, baina dauzkagun helburuak oso garrantzitsuak dira Euskal Herriarentzako"

HAUTESKUNDEAK

"Hauteskunde garaian gaude eta horren arabera jokatzen ari dira: gu zenbat eta gehiago zigortu, orduan eta bodo gehiago jasotzen dituzte. Horrekin bal-

dintzatuta daude, Horrenbestez, ez da epaiketa bat, ekimen politikoa baizik, interes batzuen araberakoa.

Lehendik ere kartzelan izan zara HBko Mahai Nazionaleko kide zinenean. Zenbat urte eman zenituen han?

Ia bi urte eman nituen. Aku-satu gintzutzen ETAKo kideak iza-teagatik eta gero, Auzitegi Konsstituzionalak zigorra kendu zigun. Bainak bi urte barruan pasa nituen eta hori ez digute ordaindu.

Nola gogoratzen dituzu espe-txeen emandako bi urte haietan?

Oso gaizki pasa nuen. Espe-txeen oso gogorra da. Orain ez dakin nola moldatuko naizen, baina esperientzia hori bizi izan dut dagoeneko eta ez da ona.

Bizi dugun egoera dela-eta, itxaropenik bai?

Ez dut uste. Oso zaila da orain pronostikoa bat egitea, ikusita nola jokatzen duten. Logikarik ez

dago. Jokaera batean logikarik ez dagoenean, pronostikoa egitea oso zaila da, ez dakigu-eta zeintzuk diren asmoak. Nik ezin ditut pronostikoa egin. Bakarrik esango dut egoera oso larria dela, ikusita nola jokatzen ari diren beste arazo batzuekin. Txarrena pentsa dezakegu eta ni egoera larrienean pentsatzen ari naiz.

Amaitu aurretik, zer irtenbide ikusten diozu egoera honi?

Oraindik bidea luzea izango dela iruditzen zait. Iraun dugun urteetan aurrerapen handiak egin ditugu. Euskal Herriko nor-tasunaren gainean lorpen handiak egin ditugu eta gaur egun ere egiten ari gara. Eta hau bes-te urrats bat da. Hala ere, pentsatzen dut oraindik luzea izango dela. Nik uste dut bide onean goazela, aurrerapenak lortzen ari garela eta Euskal Herriko gero eta elkartuago jarraitzen badugu, lortuko dugula gure asmoa. Iritsiko da azkenean gura duguna.

Sustapen honek 2007ko azaroaren 15etik abenduaren 24ra balio du

©Disney

Bazen behin amets bat.

Gabonetan zure ametsak egia bihurtu ditzakezu
eta beste batzuenak egia bihurtzen lagundu
15. urteurrena ospatuz,



JOSTAI LUAK 7

%10 eko
deskontua*



EROSKI

zurekin

*Publizitate-liburuxka
honetako kirol- nahiz
eskola-artikuluak eta
haurrentzako filmak
barne

Herriak

Arrasate > 12-13 Bergara > 14-15 Oñati > 16 Aretxabaleta > 18-19
Eskoriatza > 20 Antzuola > 21 Elgeta > 22 Aramaio > 23



> **ARRASATE**
Jokin Zaitegi sariketaren eskutik Elurra (Orhan Pamuk) itzuli dute > **13**



> **BERGARA**
Herriko sei enpresa saritu ditu Berbak Euskararen Egunean > **14**



> **OÑATI**
Felix Baltistan fundazioaren gaineko hitzaldia hilaren 13an > **16**



> **ELGETA**
Udalak mailegu berria sinatu du Kutzarekin, 15 urterako > **38**

ARRASATE > AKORDEOI JAIALDIA

Domekara bitartean akordeoia izango da protagonista nagusia Arrasaten

HAUSPOZ

Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen eskutik bost lehiaketa jokatuko dira domeka bitartean

MUNDUKO ONENAK

Nazioarteko lehiaketan goi mailako 22 partaide izango dira

FINALA Domekan jokatuko da finala Amaian, 12:30ean

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Urteko sasoi honetan ohiko denez, akordeoia izango da protagonista nagusia Arrasaten. Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen eskutik bost lehiaketa jokatuko dira domeka bitartean. Horien artean Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa (27. ekitaldia da aurtengoa) eta Nazioarteko Arrasate Hiria Lehiaketa (zilarrezko ezteiak betetzen dituena) ditugu beteranoenak. Era berean, akordeoi jaialdian harrobikola gertutik ezagutzeko aukera izango dute entzuleek, akordeoi orkestren lehiaketa ere jokatuko da eta, azkenik, Udalaitz Akordeoi Lehiaketaren II. ekitaldia jokatuko da aurten. 189 akordeoi jole batuko dira Arrasaten.

Emanaldiak Amaia antzokian, Arizmendi ikastolan eta Kulturaren izango dira eta programa zabala prestatu dute antolazaleek. Musika zaleek izango dute non aukeratu.

NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Nazioarteko txapelketan goi mailako 22 akordeoi jole lehiatuko dira, hainbat tokitatik etorrakoak: Finlandia, Frantzia, Errusia, Ukraina, Serbia... Antolatzaileen arabera, gaur egun mundu mailan diren musikari onenak entzuteko aukera izango dugu.



AKORDEOI FESTA Emanaldiak Amaia antzokian, Arizmendi ikastolan eta Kulturaren izango dira eta programa zabala prestatu dute antolazaleek.

GOIENKARIA

Epaimahairi dagokionez, honako hauek osatuko dute: Cao Xiao-Qing Shangaiko Musika Kontserbatorioko irakasleak; Jose Antonio Hontoria Juan Kristostomo de Arriaga Kontserbato-

rioko akordeoi irakasleak; Jaques Mornet frantziarak (CNIMA Akordeoi eta Musikako Zentzu Nazional eta Nazioartekoaren sortzailea 1995ean), Vojin Vasovic irakasle serbiarrak eta Clau-

dio Jacomucci Riminiko Kontserbatorioko Akordeoi Eskola Nagusiko irakasle eta zuzendari artistikoak.

Ez dute lan erraza izango partaideen lana epaitzeko orduan.

Domeka eguerdian, 12:30ean, Arrasateko akordeoi lehiaketan azken ekitaldia izango da Amaia antzokian eta ondoren aurtengo saridunak ezagutzen emango dituzte.

Etorkizuneko akordeoi joleak eta iazko irabazlea aurtengo egitarauan

Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketaren 27. ekitaldian 23 lagunek hartuko dute parte eta Euskal Herrikoak ez ezik, Espainiako Estatuko akordeoi joleen bilgunea bilakatuko da Arrasate. Lehiaketa izanik, maila handiko musikari gazteak arituko dira, tartean Julen Madinabeitia eta Andoni Otxoa gaztetxo aretxabaletarrak. Hiru maila bereiziko dituzte: haur maila (13 urterako artekoak); junior maila (14-17 urte) eta senior maila (18 urtetik gorakoak). Esan bezala, akordeoiarekin zerikusia duten hainbat ekimen izan goi ditugu domekara arte, hala nola kafe kontzertuak, kalejirak eta beste hainbat sorpresa. Bestalde, iazko nazioarteko lehiaketa eskuratu zuen Vincent Lhermet (Clermont-Ferrand, 1987) bisitari izango dugu. Gurean bi emanaldi egingo ditu: egubakoitzean, hilaren 7an, Kulturaren, 20:00etan eta zapatauan Aretxabaletan, Jasokundeko Amaren Elizan, 20:30ean. Gaur egun Parisen musikologia ikasten dihardu Lhermetek.



Vincent Lhermet iazko irabazleak bi emanaldi egingo ditu ibarrean.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Eguena, 6	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 7	Morales	Arabako etorbidea 14	943 79 18 65
Zapatua, 8	Ruiz Perez	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Domeka, 9	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Astelehenetik, 10	Azkoaga	Ferreras 1	943 79 15 15
Martitzena, 11	Azkoaga	Iturrioz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 12	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26

BERGARA

Eguena, 6	Alvarez-Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 7	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Zapatua, 8	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Domeka, 9	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Astelehenetik, 10	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Martitzena, 11	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 12	Alvarez-Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Eguena, 6	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 7	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 8	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehenetik, 10	Barrenetxe	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 11	Barrenetxe	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 12	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABAleta

Eguena, 6	Fraile Martin	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 7	Fraile Martin	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 8	Fraile Martin	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 9	Fraile Martin	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehenetik, 10	Anitua Arriola	Belorrieta 1	943 08 11 43
Martitzena, 11	Anitua Arriola	Belorrieta 1	943 08 11 43
Eguaztena, 12	Anitua Arriola	Belorrieta 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasteko ospitalea.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udaltsaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67
Kirolegiak	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uriarribar, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresia, C. Obregón, Oabarrieta, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.

IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarribar, Erguín A eta Gorostiza.

Erdigunean eta eraikin esanguratsuetan piztuko dituzte.

Urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta.

ARRASATE

>Genaro Lekuonariagur ospakizuna egingo diote

San Juan Bataitzaleko parrokoak erre-tiroa hartuko du eta eliztarrek agurtu egin nahi dute. Hala, abenduaren 16an meza berezia izango da, 11:00etan (ohiko 13:00etako ez da egongo), eta gero bazzaria egingo dute batzokian. Bazzariaren prezioa da 40 euro. Txartelak egubakoitzera arte egongo dira salgai, Zabaletan eta Muruamendiaren.

ARRASATE

>Zahar Berriaren afarikoko izenematea zabalik

Udal Euskaltegia-rekin eta AEKrekin batera antolatu du, abenduaren 14rako, Uarkapen. Izenematea edo informazio gehiago 943 77 12 28 zenbakian.

BERGARA

>Hilaren 12an Gaboneta-ko argiak piztuko dituzte

Erdigunean eta eraikin esanguratsuetan piztuko dituzte. Urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta.

BERGARA

>1989ko kintoek bazkaria egingo dute

Abenduaren 24an egingo dute. Hitzordua egin dute 08:30ean Zabala jat

kale inuesta

Zer iruditzen zaizu Arrasateko Biteri plaza?



Izaskun Uribarren

Langilea
Eskoriatza



Martin Uribarren

Erretiratua
Arrasate



Jose Angel Gamazo

Langilea
Soraluze



Rosa Bergaretxe

Erretiratua
Arrasate



M. Jesus Altuna

Langilea
Arrasate

Estetikoki zatarra da. Zuhaitz batzuk ipintzea ez lego ke batere gaizki. Beste ideia on bat umeentzako kulunkak ipintzea da, eguraldia txarra denerako. Baita nagusintzako eserlekuak.

Oso zatarra da. Diru asko gastatu dute ezer tarako. Barrakak ere ezingo dira ipini bertan jaietan. Udalak ezer egin baino lehen pentsatu egin beharko luke dirua egoki non gastatu.

Probetxua atera daitekeen moduren batera era biltzea da egokiena. Niri ez zait batere gustatzen. Nik ume txiki bat dut eta haientzako kulunka batzuk ipintzea egoki egongo litzateke.

Ez zait batere gustatzen. Gaizki aprobetxatutako lekua dela uste dut. Base ritarrak egotekotan, itxitako leku bat behar du izan. Eta umeek jolasteko zerbaite ipintzea ere egoki ikusten dut.

Oso zatarra iruditzen zait. Zerbait aldatu behar dute bertan, baina ez da gauza erraza. Umeek jolas dezaten kulunka batzuk edo xakean jokatzeko lurrean egindako taula bat egokiagoa da.

txistuak



GOIENKARIA

Espaloian oinezkoentzako lekurik ez



Bergarako auzokide batek bidali digu aste honetako kexa. Koldo Eleizalde kalean oinezkoentzako den espaloian autoak aparkatzen dituztela adierazi digu. Aste guztian zehar iza ten duten arazoa da, baina asteburuetan gehiago. Hori gertatzen den bakoitzean, oinezkoek errepidetik pasatu behar dute, eta Udaltzaingoak horren gainean ez du ezer egin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

22

Bihar emango zaio hasiera XV. Nazioarteko Arrasate Hiria akordeoi lehiaketari. Guztira 22 parte-hartziale izango dira bertan, bederatzti herrialdetatik etorriak; bestek beste, Ukraina, Errusia, Serbia eta Finlandiatik.

5 galdera...

Mari Carmen Heras

Bergarako Peñalba loteria administrazioakoa

1. Noiztik hasten da jendea Gabonetako Loteria eros ten?

Uztail eta abuztu aldean hasi zen jendea Gabonetako Loteria eskatzen, baina gehienbat azaro eta abendu artean erosten du jendeak.

2. Diru asko gastatzen du jendeak Gabonetako Loterian?

Urtean zehar erosten ez duen jendeak Gabonetako Loteria erosten du. Orokorrean esan daiteke dirua gastatzen dela. Hala eta guztiz ere, pixka bat jaitsi egin dira salmentak. Astean zehar beste joko apustuetan gastatzen dena baino gehiago gastatzen da Gabonetako Loterian.

3. Zein da jendeak aurten gehien eskatu dizuen zenbakia?


Gehien eskatu dugtena 46.202 zenbakia izan da. Gainera, zenbaki horren serie guztiek gure administrazioan dauzkagu. Zenbaki hori eskatzeko arrazoia nork berea izango du, baina orain arte behintzat gehien eskatu dugten zenbakia izan da.

4. Zein izan da orain arte jaso duzuen eskakizun nik bereziena?

Orain arte eta urte askoan zehar, 00313 zenbakia izan dugu saltzen administrazioan eta jendeak erosi egiten zuen, nahiz eta jakina den askorentzat 13. zenbakia superstizioa dela. Baina aurten ez digute bidali.

5. Jakina da zuek sariren bat edo beste emana duzuela. Bergara ez den beste herri batzuetatik etorri al da jendea loteria erostera?

Kanpora saldu dugun Gabonetako loteria guztia telefonoz saldu dugu. Leku askotatik eskatu digute: Cadiztik, Bizkai aldetik, Pontevedratik, Bartzelona, Leondik... Herrira etortzen diren kanpoko garraiolariek ere eraman dute dezimoren bat. Extremadura aldean familia duten herritarrek ere erosi dute loteria bertara eramateko. Orain arte sari txikiak dira gehien eman ditugunak. Ea aurten sari potoloa guk ematen dugun.



GABONAK > ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Abenduaren 14rako aurkeztu behar da erakusleiho lehiaketara

Kultura Sailean eman behar da izena eta edozein saltokik parte har dezake erakusleiho lehiaketan

UBANE MADERA > ARRASATE
Oraingo astean plazaratu du Arrasateko Udalak aurtengo erakusleiho lehiaketaren deialdia. Horren arabera, lehiaketan parte hartu gura duten saltoiek (Arrasateko edozein sal-

tokik parte har dezake) abenduaren 14a baino lehen eman behar dute izena Kultura Sailean.

Horrez gainera, beste honako baldintzak zehaztu dituzte: abenduaren 15erako erakusleihoak muntatuta izan behar du, eta halaxe segitu abenduaren 31ra bitartean. Epaimahaiaren lana errazteko, gainera, komeni da esandako egunotan erakusleihoak argiztatuta izatea, lanegunean dendak ixteko ordura arte eta jaiegun eta bezperetan, berriz, 21:00ak arte.

BALORAZIOA ETA SARIAK

Epaimahaiak erakusleihoak baloratzeko hauxe hartuko du kontuan: irudimena, orijinaltasuna, mezu publitzarioaren baliagarritasuna, itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin duen zerikusia. Horrez gain, erakusleihoan azaldu behar dira saltokian ohikoak diren produktuak.

Lehiaketako irabazoleak abenduaren 21ean jakinaraziko dituzte, 18:00etan. Lehen saria da plaka eta 250 euro; bigarrena, plaka eta 200 euro; eta hirugarrena (Ibai Arterena), plaka eta 150 euro.

HIRIGINTZA > SAN JOSEPEKO IDEIA LEHIAKETA

Sinatu dute hitzarmena San Josepeko ideia lehiaketarako

U.M. > ARRASATE

Atzo, martitzena, lankidetza hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak, San Josepe harobia ingurumen aldetik lehengoratzeko ideien lehiaketa egiteko.

Ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste: Ino Galparsorok Arrasateko alkateak; Carlos Ormazabalek, Garapen Iraunkorreko diputatuak; eta Arantza Tapiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak. Hitzarmen horri esker, Diputazioak 36.000 euro emanago dizkio Udalari San Joseperen gainean azpimarratu du "gutziz publikoa" izango dela.

dezan. Hau da, harrobiko jarduna bukatu ostean geratu den zuloan zer egin erabakitzeko ideia lehiaketa antola dezan.

Alkateak aditzera eman duenez, nahiz eta Diputazioarekin hitzarmena sinatu, Jaurlaritzaren onespena falta da ideia lehiaketa abiarazteko. Gaineratu du Udalak espero duela oraingo hilean lortzea onespena. Eta behin hori lortuta ahalik eta lasterren ibili beharko dutela lehiaketaren oinarrriak onartzeko. Izan ere, urtea bukatu baino lehen gura dute ekinmena abiarazi. Ideia lehiaketaren gainean azpimarratu du "gutziz publikoa" izango dela.

KULTURA > SAN NIKOLAS BOLOA

Gozoki eta 'paketek' gertu dituzte biharko, San Nikolas eguneko boloan botatzeko

Arrasateko Udalak lehen hitzordua 12:00etan egin du eta bigarrena 12:30ean, Herriko Plazan; euria bada, Uarkapen

U.M. > ARRASATE
Egun pozgarria da biharkoa (eguna) etxeko txikiendako:

lagun taldea elkartu eta etxez etxe kantuan eta gozokiak batzen ateratzeko eguna: San Nikolas.

Baina etxez etxe ibiltzeaz gainera, herriko beste hainbat puntutan ere egin dute hitzordua gozokiak, gaztainak, intxaurrek eta paketeak botatzeko.

Arrasateko Udalak, adibidez, 12:00etan egingo du lehen boloa eta 12:30ean bigarrena. Biak ere Herriko Plazan egingo dituzte, euririk ez bada, jakina. Euria egiten badu, Uarkapera joango dira. 800 euro

gastatu ditu Udalak umeendako gozoak erosten, iaz baino 100 euro gehiago: "Aurten, gozokiak baino pakete gehiago erosi ditugu, gusanituak eta halakoak, umeek nahia go dituzte-eta".

Eta bestelako puntuak dagoenak, adibidez, Muruamendiaraz gozotegian 11:30ean da hitzordua, Portaloa kioskoan (Erdiko kalean dagoena orain) 13:00-13:35ean eta Beinke jantzi-dendan 13:30ean. Lehenengo, baina, abestu egin behar da: *San Nikolas Coronado...*



UARKAPE laj Uarkapen egin zuten boloa, euria zelako.

GOIENKARIA

**KONTRATAK
IRVOK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**BITTORI
ERRETEGIA**

*Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletek*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**RECYCLING
'ekobai'**

Kartutxoen berrerabilpena eta birziklapena.

Aurrezko aukera bikaina!

Zatoz eta informa zaitez!

Arimazubi 1, behe • Arrasate • Tel/fax: 943 53 25 59





EUSKARAZKO ITZULTZAILEAK Argazkian, *Elurra* liburua itzuli duten Fernando Etxeberria eta Monika Rey.

ARGAZKI PRESS

LITERATURA > JOKIN ZAITEGI ITZULPEN SARIKETA

Iazko Nobel saridunaren itzulpeta argitaratu dute

Iazko Literaturako Nobel saridun Orhan Pamuken itzulpeta argitaratu berri dute eta abian jarri dute Doris Lessingen lana itzultzeko sariaketa

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Joan den astean aurkeztu zuten AEDko eta Elkarlanean argitaletxeko arduradunek 2006ko Literaturako Nobel saridunaren euskalazko itzulpeta. Monika Rey eta Fernando Etxeberriak frantseseko, italiarrak eta espaino-

lezko testuetatik abiatuta egin dute itzulpeta. Dozenatik gora lagun aurkeztu ziren lehiaketa, baina Nafarroako Gobernuan lan egiten duten bi itzultzaile horiek eskuratu zuten beka eta saria. Hala, lan horren emaitza, *Elurra* liburua, kalean dago.

Zikloa horrela hasi eta bukatzen dute. Hain zuzen, Orhan Pamuken liburua argitaratu duten neurrian, 2007ko Literaturako Nobel saridunaren gaineko sariaketa abiarazi dute. Hala, Doris Lessing-en *The grass is singing* liburua itzuli beharko dute. Interesatuek eleberriaren lehen bost orrialdeak landu beharko dituzte abenduaren 31 aurretik.

Bestalde, astelehenean, hilaren 10ean, Arrasaten egingo dute aurkezpena, Kulturaren, 18:30ean.

> MUSIKA
Aby-Kem eta Des-Kontrol taldeen diskoka, biak, Arrasaten aurkeztuko dituzte zapatuan

Des-Kontrol taldearen *Hamar urte* DVD-CDa eta Bergarako Aby-Kem taldearen *Azken guda* CDa kalean daude. Azken hori Gaztelupeko Hotsak-ekin kaleratu dute, Danbaka II. Musika Lehiaketa taren irabazole izateagatik. Bergararrek 3.60 aretoan emango dute ezagutzera diskoa, Gasteizko Vicepresidentes taldearekin, 22:30ean.

Des-Kontrolek, aldiz, 18:00etan egingo du DVDaren aurkezpena, DAT tabernan, eta 22:30ean kontzertua egingo dute gaztetxeen, diskoko esku hartu duten gonbidatuen laguntzarekin.



TXOMIN MADINA

Triki-poteoa euskararen alde

Zapatuko ekitaldiez gainera, Euskal Nazioarteko Eguna ospatzentzitzen zuten Arrasaten astelehenean. Oraingo honetan, Zaharberrik deituta arratsaldean lagun taldea elkartu eta triki-poteoa egin zuten herriko kaleetan. Horrez gainera, AED elkartearren egoitzan luntxa eman zieten ekitaldian esku hartu zutenei.



- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guzietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta personalizatua



EUSKARA > NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararekin bat egin zuten herritarrek

Herriko ikastetxeetan euskararen inguruko ekitaldiak izan ziren nagusi; Berbak euskara planak dituzten sei enpresa omendu ditu aurten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Herritar ugarik egin zuen bat astelehenean ospatutako Euskararen Nazioarteko Eguna. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, hainbat ekitaldi egin zituzten kalean eta herriko ikastetxeen.

Ikasleek egun berezia izan zuten astelehenean. Euskara izan zen protagonista nagusia egunean zehar eta hainbat ekimen izan zituzten jaiaren inguruan.

Miguel Altunán, esaterako, bertso eta olerki lehiaketa egin zuten D ereduko ikasleen artean.

Miren Ibarluzea elgetarra izan zen irabazlea, ondoko bertsoarekin: *Abenduak 3a/Euskara eguna/hala be euskarak/behar du jarduna/hau da gelditzen zai-gun/aberastasuna/izan dadila gure/hizkuntza kuttuna*. Ibarluzeak MP3 aparailua eskuratu zuen sari gisa. Partaideen artean egindako zozketan, berriz, Agurtzane Altuna eta Nerea Garmendia ikasleak saritu zituzten. San Martin ikastetxeen, gela bakoitzak hizki bat kaxa baten itsatsi eta margotu egin zuen goizean zehar. Eguerdian ikasle guztiak

tiak aterpean elkartu ziren esaldia osatzeko: *Kalean eta eskolan euskaraz*. Jarraian, azken asteotan gogor entseatu duten *Euskaraz plaza* kantua eskaini zuten San Martineko ikasleek.

Mariaren Lagundian ere egitarrau zabala prestatu zuten astelehenerako. Haur Hezkuntzatik hasi eta goi mailako heziketa zikloko ikasleak bitartean, txistor jana, kantaldiak, talde dinamikak, jolasak eta *Mihiluze* lehiaketa izan zituzten goizean eta arratsaldean.

Aranzadi ikastolan txokolate usain gozoa zegoen arratsalde partean. Horrez gain, euskal joko-ekin, irratsaio bereziekin, ipuin-ekin eta puxikekin ederki asko igaro zuten eguna txikiek. DBH-ko ikasleendako Kilometroetako argazki erakusketaren diaporama emanaldia eta Gabon postalen lehiaketa antolatu zuten, besteak beste. Arratsaldean, berriz, *Aupa Etxebeste!* filmaren emanaldia izan zuten.

SEI ENPRESARI OMENALDIA

Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak euskara planak abian dituzten enpresak omendu zituen astelehenean, Aroztegin. Soraluce GKN Lazpiur, Arcelor, Fit Automoción, Geyser Gastech eta Lazpiur enpresetako ordezkariek diploma oroigarri bana eskuratu zuten. Jende ugari elkartu zen Aroztegiko ekitaldian.



OMENALDIA Berbak herriko sei enpresa omendu zituen Aroztegin.

E.M.



SAN MARTIN Ikasleek Kalean eta eskolan euskaraz esaldia osatu zuten kaxekin. E.M.



ARANZADI Ikasle talde bat, landutako koreografia erakusketan arratsaldean. E.M.



MARIAREN LAGUNDIA Arratsaldean jokoak izan ziren nagusi geletan.

E.M.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatura	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotolea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untzia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



2007KO IRABAZLEA Mikel Calvok irabazi zuen pasa den urtean. GOIENKARIA

ARATUSTEAK > KARTEL LEHIAKETA

Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Kartelak Bergarako kultura etxearen aurkezta beharko dira urtarrilaren 4a baino lehen

JASONE ZABALA > BERGARA

Beste behin ere, 2008ko Aratusteetako jai egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Bergarako Udalak.

Lehiaketa horretan, Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Kartelaren baldintzei dagokienez, kolore eta teknika librean, 40x60 zentimetroko kartozko oinarri baten gainean aurkeztuko dira, eta formatu bertikalean. Era berean, informatika diskete batean ere aurkezta beharko da diseinua. Kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer edukiko.

Kartelak *Aratusteak 2008*, Bergara testua eraman behar du nahitaez. Lehiaketako irabazoleak 300 euroko saria lortuko du. Hain zuzen ere, Bergarako kultura etxearen aurkezta beharko dira urtarrilaren 4ko

13:00ak baino lehen. Eta Udalak hala erabakiz gero, aurkeztutako kartel guztiak erakusketak antola dezake. Aurtengo Aratusteak otsailaren 1etik 5era izango dira. Joan den urtean, Mikel Calvo izan zen irabazlea.

Parte hartu nahi duenak Udaleko webgunean edo Kultura Zerbitzuan (kultura etxea) aurkitu ditzake oinarrak.

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA
Bestalde, gogoratu behar da amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko epea datorren urtarrilaren 6an amaitzen dela. Bertan, 1993an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan beharko dute. Argibide gehiago Jardunen (Errotalde jauregia, 943 76 36 61) edo www.jardun.net webgunean.

Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



GABONAK > GABONETARAKO EKITALDIAK

Hainbat ekitaldi egongo dira Gabonen atarian

Erakusleihoko lehiaketa gain, Gabonetako argiak piztea, Gabonetako kontzertuak eta umeentzako jolasak ere egongo dira

JASONE ZABALA > BERGARA

Gabonen atarian gaude dagoeneko eta hainbat ekintza antolatu ditu Bergarako Udalak. Lehenik eta behin, herriko kaleak Gabon giroaz janzteko, abenduaren 12an Gabonetako argiak piztuko dituzte, 2008ko urtarrilaren 7ra arte.

Musika ekitaldiei dagokionez, abenduaren 22an, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak. Ekitaldia Udal pilotaleku izango da,

22.30ean. Umeentzat ere egongo da zer ikusi eta zer egin: abenduaren 26an, eta hiru egunean zehar, Gabonetako jolasparkea egongo da.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Erakusleihoko lehiaketa parte hartu nahi dutenek berriz, abenduaren 12rako gertu izan beharko dute erakusleihoa. Hiru erakusleihoko onenak sarituko dituzte eta bakoitzak 250 euro jasoko ditu saritzat.



BERGARA, ARGIZTATUTA Bergarako Gabonetako argiak abenduaren 12an piztuko dituzte.

ARTXIBOA

 **GAZTELU**
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

Mujika
gozategia

 Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

Ion Murgizu Pinturak
Pintura orokorrean

Fatxadak
Pintura Industriala
Dekorazio Pinturak

Bergara - Soraluze
Tf: 943 75 13 24 - 652777030

EUSKARAREN EGUNA > IKASTETXEEK OSPATU DUTE

Oñatiko hiru ikastetxeetan ekitaldi ugari egin dituzte

Txantxiku Ikastolan, Ekar Hezin eta Herri Eskolan ekintza ugari egin zituzten

Guraso eta ikasle askok hartu zuten parte Euskararen Eguneo ekintzetan

MAIDER ARREGI > OÑATI
Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, partaidetza handia izan zen Oñatiko hiru ikastetxeek antolatutako jardueretan.

TXANTXIKU IKASTOLA
Goizean goizetik, Txantxiku ikastolako umeek ekintza askotan hartu zuten parte. Zubikoa kirolegian batu ziren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako umeak. Besteak beste, eskulanak, Argi-xo Iratxoaren marrazkiak eta dantza saioak trikitilariekin egin zituzten. DBHko ikasleek ipuin kontaketa saioa ere egin zuten. Arratsaldean gaztelekuak elkartu ziren TTAK ikasleen euskara taldeak antolatutako jaialdian.



EUSKARAREN EGUNA Argazkian Elkar Hezikoi ikasleak Santa Marina plazan euskararen aldeko jokoak egiten.

GOIENKARIA

18:15ean, berriz, Gurasoen Euskara Taldeak antolatuta, kantu saioa egin zuten.

ELKAR HEZI IKASTETXEA
Guztira, 380 bat umek hartu zuen parte Elkar Hezik antolatutako ekintzetan. Goizean marrazkiak eta jokoak egin zituzten; arratsaldean, berriz, areto nagusian bildu ziren ikasleak eta dantza eta abesti euskaldunak abestu zituz-

ten. Gainera, euskararen aldeko manifestua ere irakurri zuten. Ondoren, herri kirolak egin zituzten eta *Aizu gaur euskararen eguna da* leloa zeramaten txartelak banatu. Gainera, hilaren 6rako Durangoko azokara joateko autobusa antolatu dute guraso zein ikasleentzat. 09:15ean irtengo da Santa Marina plazatik. Hala, azokako literatura aretoan ekintzak egingo dituzte ikasleek.

ERREKALDE HERRI ESKOLA

Goiz-goizetik Haur Hezkuntzako umeek marrazkiak eta jolasak egin zituzten. Lehen eta Bigarren hezkuntzetako ikasleek herri kirolak ere egin zituzten. Hirugarren ziklokoek, berriz, rally kulturala egin zuten herriko alde zaharrean herriko kulturarekin lotutako galderak. Ondoren, ikasleek prestatutako bertsio saioarekin eta abestiek gozatu zuten.

ELKAR HEZI > ABENDUKO EKINTZAK

Elkar Hezi ikastetxeak hainbat ekintza eta hitzaldi antolatu ditu abendurako

Gobernuz kanpoko erakunde batzuen lana ezagutzeko aukera eskainiko dute; hitzaldiak abenduaren 13an hasiko dira



FELIX BALTISTAN Azpiegiturak eraikitzen dihardu fundazioak Matxulun. GOIENKARIA

MIREN ARREGI > OÑATI
Elkar Hezi ikastetxeak abenduan zehar gauzatuko diren hainbat ekintza, ikuskizun eta hitzaldi antolatu ditu. Besteak beste, gobernuz kanpoko erakundeen hitzaldiak, Gorakada taldearen *Robin Hood* ikuskizuna eta Gabonetan ohikoak diren ekintzak.

Egitarau beteaz gozatu ahal izango dute Elkar Hezikoi ikasleek abenduan zehar.

FELIX BALTISTAN FUNDAZIOA

Felix Baltistan Fundazioaren hitzaldia da Elkar Hezik abendurako antolatu dituen ekintza guztietatik lehenengo egingo dena.

Felix Baltistan Fundazioaren lana Matxuluko herritarrei garatzen laguntzeko azpiegiturak eta baliabideak eskaintzean datza; Matxulu eta inguruko herrietako biztanleei laguntzen die fundazioak, eta haien eguneroko bizitzako oinarritzko premiak hobetzen saiatu: hezkuntza, nekazaritza, azpiegiturak...

Felix Baltistan Fundazioaren gaineko hitzaldia abenduaren 13an izango da, 11:00ak eta 12:30ak bitartean, Elkar Hezik Lehen Hezkuntzako aretoan. Hizlaria Alberto Iñurrategi da eta Matxuluko ureztatze sistema berriaren gainean jardungo dute.



MAIDER ARREGI

ETEOko biribilgunea amaituta

San Lorentzo auzoko Enpresa Zientzia Fakultate parean dagoen biribilguneko lanak guztiz amaitu dituzte. Hala, biribilguneak San Lorentzo auzoko eta Ugarkalde auzoko zirkulazioa arinduko du.

Bestalde, abiadura moteltzeko altxatutako bi zebrabide jarri dituzte biribilgune hasieran eta amaieran.

BENITO LERTXUNDI

Sarrerak dagoeneko salgai daude 10 eurotan

Abenduaren 22an emango du kontzertua Lertxundik, Zubikoan

MIREN ARREGI > OÑATI
Aurtengo Gabonetako egitarauaren barruan, Benito Lertxundi etorriko da kontzertua ematera; hori abenduaren 22an izango da, zapatua. Kontzertura joan nahi dutenek salgai dituzte sarrerak kultura etxean, 10 eurotan. Egunean bertan, txarteldegean, 12 euro balioko dute.

Sarrerak erosteko ordutegia honako hau da: astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era; eta zapatuetan, berriz, goizeko hamarretatik ordu batera hartu ahal izango dira sarrerak.

BENITO LERTXUNDI
Aurrez ere izan dute oñatiarrek Benito Lertxundi Zubikoa kirolegian zuzenean ikuusi eta entzuteko aukera. Arrakastatsuak izan dira, gainera, Lertxundik Oñatin eskainitako kontzertuak. Aurten ere, duda barik, ikuskizun aparta eskainiko du, *Bizkaia maitetza* eta bestelakoekin.

J A N T Z I D E N D A

E T X E A P A I N K E T A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

KULTURA > NEGUKO EGITARAUA

Kontzertuak, dantzak eta ohiko ekitaldiak Neguko Egitarauan

Juanjo Gabiña adituak klima-aldaketaren gainean jardungo du hilaren 13an

Ume eta gazteek ekitaldi mordoa dituzte abenduaren 26tik urtarrilaren 5era

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Udalak astean bertan banatu du herritarren artean negurako ger-tatu duen egitaraua. Urteetako tradizioa duten ekitaldiek jarri-pena izango dute; erakusleho lehiaketak, esaterako. Eguenean, hilaren 6an hasiko dute, eta herriko edozein komertzioak parte har dezake. Urtea bukatu bitartean izan beharko du Gabon sasoiko apaingarriekin, eta urtarrilaren 6rako banatuko dituzte sariak. Hiru onenek jasoko dituzte: 250 euro, 150 eta 100, hain zuzen.

Eta ekitaldi berrien artean berbaldia antolatu du. Klima-aldaketaren gainean egingo du berba Juanjo Gabiña adituak. Hilaren 13an izango da, Iralabarra plazan.

MUSIKA ETA DANTZA Musikak eta dantzeak tarte handia izango dute Gabon sasoian. Zapataun, hilak 8, akordeoi kontzertua izango da parrokan. Iazko Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren irabazleak, Vincent Lhermet frantzarrak, eskainiko du saioa. Eta hilaren 15ean, Mexikon izan berri



ERA-KUSLEIHOAK Herriko erakuslehoak dotore jartzen hasi dira bihar hasiko den lehiaketan parte hartzeko.

M.A.

den Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak eskainiko die kontzertua herritarrei.

Abenduaren 14tik 16ra, oste-ra, kontakt-bideo kreazio-inpro- bisazio ekitaldi eta ikastaroa egingo dute. Jaiki elkartea antolatu du eta izena aurrez eman behar dute interesatuek, Azkena tabernan.

Hilaren 18an Leizarra Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute, eta hilaren 28an, Aretxabaleta Abesbatzak eskainiko du ekitaldia.

UME ETA GAZTEENDAKO

Basotxo Erretiratuen Elkarteak 25. urteurrena ospatuko du abenduaren 15ean, eta egitarau berezia antolatu dute.

Umeek, osteria, ohiko ekitaldiekin gozatuko dute: abenduaren 24 goizean Gabon kantuak abestuko dituzte kalean eta arratsaldean Olentzeroren etorrera ospatuko dute; hilaren 31n, Bizarzuri izango da protagonista eta urtarrilaren 5ean, Errege Kabalgata.

Horiez gain, ume eta gazteen astea antolatu dute abenduaren

26tik 30era. Txikieneak, ume batukada eta *Jokalata* jokoekin izango dute ondo pasatzeko aukera. Ludotekan, gainera, urtarrilean egitarau berezia izango dute. Eta urtarrilaren 26an, Pirritx eta Porrotx pailazoak etorriko dira *Eskerrik asko* ikuskizunarekin.

Gaztetxoek, osteria, PlayStation erraldoia, break-dance talierra eta antzekoak izango dituzte. Gainera, irteera antolatu dute gazelekuko kideek urtarrilaren 2tik 4ra bitartean; leku oraindik ez dute zehaztu.

UDALA

Gobernu batzordeak eskumenak izango ditu

Erabaki batzuk alkateak hartu ordez gobernu batzordeak hartuko ditu

M.A. > ARETXABAleta Gobernu batzordeari erabakitzeko ahalmena ematea era-baki du udal gobernuak, eta horren berri argitaratu zuen azaroaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak. Hala, era-baki guztiek alkateak hartu beharrean alkatetza-dekreto bidez, batzuk gobernu batzordeak hartuko ditu. Aralarrek eta EAk osatzen dute gobernu batzordea, eta kide hauek elkartzen dira: Inaxio Garro alkatea, Joxe Anjel Antxia eta Lore Martinez.

ESKUDUNTZAK

Hainbat giren gaineko era-bakiak hartu ahal izango dituzte; hona batzuk: gestio ekonomikoaren jarduna, gastua 6.000 eurotik gorakoa bada; obrak eta zerbitzuak kontratatzea; dirulaguntzak ematea; udal aurrekontuaren likidazioa onartzea; hiri-gintza gestioko baliabideak eta proiektuak onartzea; baimenak ematea; etxerik etxe-ko laguntzak erabakitzea; eta zigorrak ezartzeko ahalmena izatea beste eskumen batzuekin batera. Eta agintaldia bukatu artean iraungo du era-bakiak.

Hori horrela, Udalaren gaineko era-bakiak hartzeko ahalmena hiru organok dute: alkateak, gobernu batzordeak eta osoko bilkurak.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EUSKARA > PALA TXAPELKETAREN BUKAERA

Jotzeko Prest! pala txapelketaren porra abian da, finala girotzeko

Galdera bi erantzun behar dira euro baten truke: Zein bikote pasatuko da finalera? Nork irabaziko du?

Jon Maiak eta Aitor Mendiluzek girotuko dute Muru Alde elkarteko bertso afaria, hilaren 14an

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Gaur, eguztena, jarriko du abian Loramendi Euskara Elkartea Jotzeko Prest! pala txapelketaren inguruko porra. Urrian hasi zuten txapelketa hamalau biko-tek, eta abenduaren 14an jokatuko duten finala girotzeko antolatu du porra.

GALDERA BI ERANTZUN BEHAR
Urbaltz, Arlutz eta Gurea tabernetan egingo diote jarraipena porrari, eta euro baten truke galdera bi baino ez dituzte erantzun behar herritarrek: Zein bikote pasatuko da finalera? Eta nork irabaziko du txapelketa? Erantz-

nak asmatzen dituztenen artean zozketa egingo dute hilaren 14an, finala jokatu osteen, eta, antolatzaileen esanetan, sari interesgarriak dituzte banatzeko.

BERTSO AFARIA, MURU ALDEN
Pala txapelketaren finala ospatze-ko egitarau dotorea antolatu du Loramendi EEk. 19:00etan izango da finala, Iturrigorri pilotaleku, eta musika izango da eki-taldia girotzeko. Bukatutakoan txikiteoan joango dira, eta 21:30ean, bertso afaria egingo dute Muru Alde elkartean. Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertso-lariak gonbidatu dituzte afalos-



TXAPELKETA Jotzeko Prest! pala txapelketako jokalari bi.

GOIENKARIA

tea girotzeko asmoarekin, eta umore ona eta jai giroa izango dira nagusi. Txartelak salgai dituzte Loramendin bertan eta Urbaltz eta Azkena tabernetan 15 euroren truke. 60 txartel jarri dituzte salgai; hortaz, lehenbai-lehen erostea komeni da.

SUKALDARITZA IKASTAROA
Abenduaren 18rako, martitzena, sukaldaritza ikastaroa dauka antolatuta Loramendi EEk. Carlos Mugerta sukaldariak egingo du Muru Alde elkartean, 16:00etan hasita, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik.

Euskaltzaleen argazkia Euskararen Eguna ospatzeko

Euskal Herriko bazter askotan legez, gurean ere ospatu zuten Euskararen Nazioarteko Eguna astelehenean. Loramendi EEk, Udal Euskaltegiak eta Barriketan taldeak egindako deiari erantzunez euskaltzale ugari elkartzen Herriko Plazan argazkia ateratzen. Eta bertan, atxikimendu mezua irakurri zuten. Herriko kaleetan kantuan egin zuten gero, eta txistorra janda bukatu zuten ospakizuna.

Herriko ikastetxeetan, ostera, jolasak eta eskulanak egin zituzten euskararen aldeko leloak botata.



M.A.

PARROKIA

Abendu eta Gabonetako egitaraua gertu dauka

Familia meza egingo dute katekesiko ume eta gurasoek hilaren 22an, 19:30ean

M.A. > ARETXABAleta

Abendu eta Gabon sasoirako egitaraua egin du Leintz Pas-toral Barrutiak. Hala, abendu-koko domeka guztietan bezperak otoitz egingo dituzte 18:30ean, agustindar mojen komentuan. Hilaren 8an, Sortzez Garbiaren eguna, abade bokazioen aldeko otoitzaldia egingo dute komentuan bertan, 19:00etan. Arrasateko artzapres-barruti-rako osorako antolatu dute, eta parrokietako eta erlijio elkartetako kide guztienda-ko dela adierazi dute.

Hilaren 18an, osterak, elkarteko adiskidetet sakramenta egingo dute, parro-kian, 19:00etan, eta bakarka-ko aitortzak gurago dituzte-nek hilaren 24an izango dute, 12:00etan. Eta 22an, zapatua, familia meza ospatuko dute katekesian dabiltzan ume eta gurasoek, 19:30ean.

JAIENTAN, OHIKO ORDUTEGIA

Natibitate egunean, abenduak 25. Urteberri egunean, urtarrilak 1, eta Epifania egunean, urtarrilak 6, meza bi izango dira: 09:00etan komen-tuan eta 11:30ean parrokian.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEAE

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABAleta
Tel.: 943 79 04 39

IKERKETA > AURREKO AGINTALDIKO KONTRATAZIO BATZUEN GAINeko SUSMOA

Hirigintzak eta Ogasunak aztertuko dituzte kontrataazioak

Osoko bilkuran aditzera emandako ustezko irregularutasunak aztertuko dituzte Hirigintza eta Ogasun batzordeetan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Herenegun, astelehena, batzartzen Udaleko Hirigintza batzordea azaroko osoko bilkuran aditzera eman zuten ustezko kontratazioen irregularutasunen gaia aztertzeo.

Gaur egungo Hirigintza batzordeko kideez gain, aurreko agintaldiko Hirigintza zinegotzi Josu Ezkurdia eta Frix eraikuntza enpresako arduradunak ere batzarrean izan ziren. Aurreko agintaldiko alkate Juan Carlos Bengoak ezin izan zuen batzarrean joan, eta kontratazioen gainezko azalpena idatziz bidali zuen.

Udalaren susmoa da aurreko agintaldian San Juan kaleko lanak egiteko kontratazio batzuetan irregularutasunak izan zirela. Hain zuzen ere, azpimarratu zuten kontratazio horiek ez zute la diru partidariak izan, eta ez zirela batzordeetan onartu. Are gehiago, azaldu zuten sei faktura horietako bakoitza oso gutxigatik ez dela heltzen 30.000 euroa. Eta horri gaineratu zioten 30.000 euroko kontratazioa egitekotan derrigorrezkoa dela lehiaketa publicoa egitea.

PROZEDURA DESEGOKIA

Herenegungo batzarrean Ezkurdiaren eta Frix enpresako ordezkarien iritziak jaso zituzten. Horrez gain, Bengoak bidalitako idatzia alderdi guztietako ordezkarien artean banatu egin zuten.

Bengoak eta Ezkurdia onartu egin zuten prozedura ez zute la ondo egin, baina hori egitearen arrazoia izan zela lanak azkar egiteko premia zegoela.

Fixi enpresako ordezkariek, berriz, bat egin zuten aurreko agintaldiko Hirigintzako ordezkariek emandako azalpenekin, eta egindako lana oraindik ez dutela kobrau azpimarratu zuten.

OGASUN ETA HIRIGINTZAK AZTERTU

Pedro Lasagabaster alkatearen ustetan gaia oso larria da, eta horregatik komeni da tentuz eta ondo aztertzea. Horretarako, bi batzar deitu dituzte datorren aste-rako: batetik, astelehenean, Hirigintza batzordea berriro elkartuko da; eta bestetik, egunean, hilaren 13an, Ogasun batzordea batuko da.

Ogasun batzordearen asmoa da arretaz aztertzea kontratazio horiei dagozkien zein lan egin diren eta zein lan ez. Horrek batera, egindako ordainketak ere gainbegiratuko dituze.

Udaleko alderdi politikoek oraindik ez dute gaiaren gaineko balorazio zehatzik egin.



ZIRKULAZIOA Orain dela urte gutxi gogortu zituzten isunak.

IKER BARANDIARAN

ZIRKULAZIOA > UDALAK HARTUKO DU ESKUMENA

Udalak zirkulazio isun guztiak bideratuko ditu

Isunak ordaintzeko eskoriatzarrek ez dute Donostiara joan behar izango

I.B. > ESKORIATZA

Udaleko osoko bilkurak onartu zuen Trafikotik jasotako eskaera onartzea. Alderdi guztiak baiezko bota eman zioten, EBk izan ezik. EBko ordezkarriak jakinarazi zuen berak ez zuela proposamena irakurtzeko aukerarik izan.

Aldaketa horren oinarri nagusia da urtarriletik aurrea udalerriko zirkulazio isun guztiak Udalak berak kudeatuko dituela.

DELEGARITZAREN ALDAKETAK

Bitxikeria moduan, orain dela hiru bat urte Trafikoko delegaritzak agindu zien udalei zirkulazioaren eskumen guztiak berak hartuko zituela. Orain, berriz, isunei dagokiena udalei itzultzeko asmoa dauka. Udalek ez daukate horri kontra egiteko aukera askorik.

Hortaz, eskoriatzarrek dagoeneko ez dute Donostiara isunak ordaintzera joan behar izango; horren ordez herrian bertan kitatuko dituzte zorrak.

Eskoriatzako Udaltzaingotik jakinarazi digute hiru motako isunak jarriko dituztela: arinak (30 eurotik gora), larriak (100 eurotik gora) eta oso larriak (301 eurotik gora).


HIRU MOTATAKO ISUNAK

Isun arinak aparkamenduaren lotutakoak izango dira; larriak eragozpen handiak sortzen dituzten aparkatzearen gainekoak edota kontrako zen-tzuaren gidatzen dutenendako; eta oso larriak edanda gida-tzea, zabarkeriaz aritzea edota herritarra arriskuan jartzea. Urtean hiru bat isun arin eginez gero, hirugarrena larria izango da.

Musika margolanetan Inkernun

Aitzorrotz kultura elkartea hilabeteko antolatzen ditu erakusketa Inkernu tabernan. Abenduan ere bi erakusketa egongo dira han ikusgai. Egunotan eta hilaren erdialdera arte Eibarko Koldo Gojenolaren margolanak daude ikusgai. Gojenolak musika du inspirazio nagusi, eta horren gaineko margolan esanguratsuak batu ditu Inkernun.

Hilaren bigarren hamabostaldian, berriz, Juan Luis Zubizarreta-en Eskoriatzako mendi postontziak iruditan jarriko dute ikusgai.



IKER BARANDIARAN



DE LA TORRE igeltserotza

*Erreformak orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Itsaso Azkargorta > Antzuolako Gazte Asanbladako kidea

"Gaztetxea biziberritu egin nahi dugu eta helburu horri begira dihardugu lanean"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Antzuolako Gazte Asanbladakoek berrindartu egin nahi dute Asanblada bera eta gaztetxea. Gaztetxeari bizitza eman nahi diote eta urtarrilerako inaugurazio ekitaldi berria antolatzen hasi dira. Egubakotzean batzar orokorra egin zuten.

Zela joan zen batzarra?

Oso ondo; jende mordoa elkartu ginen. Gaztetxeari bizitza eman nahi diogu eta horri begira dihardugu lanean. Noizean behin, batzar orokorak egiten ditugu, gazte gehiagoren ekarpenak jasotzeo.

Urtarrilerako inaugurazio berri bat antolatuko duzue.

Bai; espero dugu azkeneko inaugurazioa izatea, gehiegitan egin izan dugu eta. Orain dela pare bat urte egokiutu genuen Kalebarrengoko lokalak, gazteak topaleku bezala. Ordutik, gorabehera asko izan dugu eta itxita ere egon izan da gaztetxea. Urtarrilean egingo dugu ekitaldi bat, jendea guregan erakartzeko.



Itsaso Azkargorta, gaztetxean. A.I.

Zer esango zenieke gazteei?

Egia esan, badakigu gu baino nagusiagoak diren gazteak ez direla hona etorriko, hemen egotera. Baino, behintzat, nahi dugu poteoan dabiltzanean gaztetxera ere sartzea. Horretarako, garrantzitsua izango da kontzertuak antolatzea, esaterako.

Orain arte ez da kontzerturik antolatu izan.

Ez, ez genuen horretarako baimenik. Orain, baina, Udalak lagatzen digu eta euren lagunata-

suna daukagu, gainera. Guk uste dugu kontzertuak antolatzeak, betiko jendeaz gain, beste batzuk ere erakarriko dituela. Gainera, orain jendea erakartzea garrantzitsua da, gero, eraikin berrira, gaur egun anbulatorioa dagoen tokira, ere etorri daitezen.

Ze plangintza egin duzue aurrea begira?

Gure asmoa da hilabetero ekintza bat antolatzea; gainera, data jakin baten izango da beti, seguruena, hilabeteko hirugaren egubakotzean.

Barra ere baduzue orain?

Orain dela urtebete inguru jarri genuen. Hasieran, jende nagusi asko hasi zen etortzen, baina orain, berriro ere, gainbehera izan dugu. Guk nahi dugu gaztetxeak duen lokal kontzeptuarekin apurtzea, baina kontuan hartu behar da taberna hutsa ere ez dela. Gazteondako zein herri-tar guztiendako gunea da. Guk antolatzen ditugun ekimenak herri osoaren dako dira.

MUSIKA > ANTZUOLAKO MUSIKA ESKOLA

Musika emanaldia eguzten iluntzean

Musika eskolako neska-mutikoek musika emanaldia egingo dute eguztenean, hilak 12, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Urtero bezala, herriko musikari txikiak emanaldia egingo dute Gabon jaien atarian. Udalatxeko osoko bilkuren aretoan izango da hori, datorren asteko eguztenean, abenduak 12, 19:00etan.

Iazko ikasturtean hasi ziren eskola gehiengosunak Antzuolan eskaintzen. Bergara joaten dira musika tresnen eskolak jasotzera.

EMANALDI OSOA

Eguazteneko emanaldia osoa izango da; esan bezala, musika eskolako ikasle guztiak, 45ek, parte hartuko dute eta joko ditutte trikitia, akordeoia, biolina, biola, pianoa, tronpa, klarinetea, saxofoia, guitarra eta oboea. Bukatzeko, hizkuntza musikaleko eta abesbatzako ikasleek abestu ere egingo dute.

> FUTBOLA

Derbi interesgarria jokatuko dute zapatuan antzuolarrek Bergarako taldearen aurka

Aurreko astean lidergoa lortzeko aukera paregabea izan zuen Antzuolak; izan ere, zapatuan, Urola liderrak galdu egin zuen. Antzuola, irabazita, lider jarriko zen, baina galdu egin zuen Elgoibarren aurka (3-1). Hilaren 8an, zapatua, Bergararen aurkako derbia izango da, Eztañan, 16:00etan. 22na puntu dituzte talde biek.

> MERKATARITZA

Negozi berria martxan jarri dute oraingo astean Antzuolan, Ilaia ile-apaindegia

Aurreko domekan egin zuten Ilaia ile-apaindegia eta estetika zentro berriaren inaugurazio ekitaldia. Zabalik dago martitzena ezkerro. Negozi berri hori Jessica Escobar ile-apaintzaileak eta Nagore Gonzalez estetizistak zabaldu dute, Kalegoin. Ilaia-rekin, dagoeneko lau ile-apaindegia daude herrian.

> IKASTAROAK

Pintxo ikastaroa astelehenetan izango da, eta ez martitzenetan, hasieran iragarri zuten moduan

Datorren astelehenean, abenduak 10, hasiko da pintxo ikastaroa. Trekuetako izango dira eskolak, 18:00etik 20:00etara. Ana Albizu izango da irakaslea. Saioak martitzenetan izango zirela iragarri zuten arren, astelehenetan izango dira. Eskulan ikastaroa, bestalde, urtarrilaren 12an, zapatua, hasiko da.

Euskararen Eguna ospatu zuten kantuz

Astelehenean izan zen arren Euskararen Eguna, Antzuolan domekan ospatu zuten. Arrieta anai-arrebek giro polita jarri zuten euren musika eta abestiekin Zurategiko plazan. Iku-entzuleak ere kantuan jarri zituzten zumarragarek.

Hotzari aurre egiteko, bestalde, ondo etorri ziren Gaztegune-koek egindako taloak. Argazkian, talo-egile gazteak.



ANTZUOLAKO UDALA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatu eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

•

Paper margotuak

•

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



TORREALDEA Eskriturak Aste Santurako sinatza aurreikusten dute Udalak eta Murias enpresa-eraikitzaleak.

L.Z. > ELGETA > UMEENDAKO JOLASGUNE BAT

Eskatuz gero argiak piztuko dituzte arratsaldez frontoian

Neguan umeek non jolastu izan dezaten hartu du neurria kiroletako batzordeak

L.Z. > ELGETA

Goiz iluntzen du neguan, eta hori arazo izaten da guraso askorendako. Bada, aurtengoan ere Udal Pilotalekua izan daitake aukera apropoa. Hain zuzen ere, kiroletako udal batzordeak herritarrei arratsaldez pilotaleku argiak piztuko aukera ematea erabaki zuten azaroaren 31n egindako saioan. Argiak pizteko eskaera Bolatoki tabernan egin beharko da eta ordutegi jakin baten barruan: astelehenetik barikura bitartean 16:30etik 18:00etara; zapatuetan 16:00etatik 19:30era; eta domeka eta jaiegunetan 17:00etatik 18:30era. Neguko ordutegia indarrean dagoen bitartean eskainiko du Udalak zerbitzu hori. Besteak beste, neguan umeek non jolastu izan dezaten hartu du erabakia aurten ere kiroletako udal batzordeak.

L.Z. > GAZTELEKUA > ZERBITZUA MARTXAN JARRIKO GURA DU UDALAK

Begirale bat behar da gazteleku zerbitzuarendako

Gurasoekin bilera egin ostean pertsona bat kontratatzea erabaki du Udalak

tzeko prest eta urte osoko plangintza egitea beste aukerarik ez du ematen. Hileko 3.000 euro eskatzen ditu.

IZENEMATEA HILAREN 12RA ARTE

Gurasoekin iritzia jaso ostean, gazteleku zerbitzua martxan jaratzeko Udalak begirale bat kontratatzea erabaki du. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena hilaren 12ra bitartean. 18 urtetik gorakoia izatea, euskal jakidea eta alor horretako ikasketak eginda izatea edo egiten aritzea eskatzen dituzte.

> GAUR, EGUAZTENA, TUTOREA KZGUNEAN IZANGO DA Interneten inguruko hiru ikastaro egiteko aukera eskainiko du gaur Aitor Madrid tutoreak

Gaur, hilaren 5ean, egingo du Aitor Madrid Elgetako KZGunea tutoreak hileko lehenengo bisita herrira. 18:00etatik 20:00etara izango da herrian eta Interneten inguruko hiru ikastaro egiteko aukera emango du. Oinarrizko ikastaroak dira guztiek. Interesatuek kultura etxeko KZGunea jo behar dute esandako ordutegian.

> IKUSKIZUNA

Lennart Green mago suitzarra Espaloian izango da hilaren 15ean, eta sarrerak salgai daude

Karta-jokoak egiten ditu Lennart Green mago suitzarrak eta Espaloia Kafe Antzokian izango da laster. Haren teknika kaotikoa arte bilakatzen duela diote mundu mailako adituek. Hilaren 15ean, 22:30ean, egingo du ikuskizuna Elgetan eta sarrerak dagoeneko salgai daude 15 eurotan. Bazkideendako 12 euro da.

> IMSERSOKO BAINUETXE PROGRAMA

Udaleko Gizarte langilea hasi da Imsersoko bainuetxe programarako izenemateak jasotzen

Imsersok 2008rako ere bainuetxe programa jarri du martxan pentsiodunendako. Egonaldiak 12 egunekoak izango dira eta izena emateko epeak zabalik daude. Interesatuek Elgetako Gizarte langilearen garaia jo behar dute hilaren 12a baino lehen, bainuetxera urtarrilean edo otsailean joan nahi izanez gero.



L.Z.

Idoia Azkarate berargarraaren lanak Espaloian

Idoia Azkarate margolari berargarra pintura erakusketa jarri du Espaloian. Hilaren 21era arte egongo da ikusgai 22 margolanek osatzen duten erakusketa. Material desberdinez egindako lanak dira. Argizariak, pastelak eta akrilikoak dira nagusi. "Irudimena da nire lanaren oinarria", esan du Azkaratek. "Honen bitartez leihoa desberdinak irekitzen baititut, ikusleak ere protagonista senti daitezten". Margolanak salmentan ditu Azkaratek 75 eta 300 euro bitarteko prezioan.

EUSKARAREN EGUNA > 'ZER BA? EUSKARAZ BERBA'

Gaur arratsaldean amaituko dira Euskararen Eguneko ekitaldiak

Abenduaren 3an, astelehenean, Euskararen Eguna izan zen; Aramaion, baina, gaur arte iraun dute ospakizunek

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Aramaion Euskararen Egunak hiru egun iraun du. Astelehene-

an hasi zituzten ospakizunak eta gaur emango diote amaiera Euskararen Egunari. San Martin Eskolak, Guraso Elkarteak eta Aramaioko Udalak egitarau zabala antolatu dute hiru egun horietarako.

Astelehenean, goizean goiz, San Martin eskolako haurrek aditzera eman nahi izan zuten egun berezia zela astelehenekoa: Euskararen Eguna. Hori horrela, pankarta handi bat ipini zuten ikastetxeko eraikinean

Zer ba? Euskaraz berba leloarekin. Jolastokira atera eta kantuaren ere aritu ziren eskolako haurrek. Goizean zehar, ondoren, ikastetxeko talde bakotzak kontaketa bat prestatu zuen beste talde bat eskaintzeko. Eta arratsaldean, eskolako guraso bat kontu kontari aritu zen eta ipuin kontalari bat ere izan zuten eskolako liburutegian. Martitzenean berba jolasak egin zituzten: olerkiak, bertsoak, asmakizunak, hieroglifoak, SMS mezuak eta abar.

Gaur bukatuko dute Aramaion Euskara Eguna ospatzan. Goizean abestiak eta esketxak egingo dituzte eskolan bertan eta arratsaldean, berriz, euskararen jaialditzoxa.

Bestalde, Aramaioko Udalak ere Euskararen Egunaren ospakizunetan parte hartu nahi izan du. Hori horrela, eta San Martin eskolakoek antolatutako egitaraua osatzeko, antzerki emanalak antolatu du gaur arratsalderako. *Magic Klown* da antzezlanaren izena, magia eta klowna nahasten dituena. 18:30ean izango da hori, Aramaioko kultura etxearen.



EUSKARAREN EGUNA pankarta handia jarri zuten San Martin eskolakoek. GOIENKARIA



ESKULAN TAILERRA Aramaioko gazteak eskulan tailerrean.

ARRITXU BARRUSO

KULTURA > LANKIDETZA

Bi afrikarrek lagunduta lepokoak egin zituzten

'Lankidetza argazkitan jasota' erakusketarekin batera tailerrak eta kontzertua antolatu dituzte

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Arabako Diputazioa eta Gasteizko Udalak antolatuta, abenduaren 9ra arte *Lankidetza argazkitan jasota* erakusketa egongo da ikusgai Santiñan. Bi instituzio horietatik dirulaguntzak jaso dituzten erakundeek aurrera eramandako proiektuen argazkiak dira. 42 dira guztira eta lekukotasunaren balioa dau-

katen agiriak dira. Lankidetza-rekin lotuta, baina, makina bat ekitaldi egin dute egun hauetan. Astelehenean eskulan tailerra egin zuten kultura etxeen. Burkina Fasoko bi gaztek lagunduta lepokoak eta eskumuturrekoak egin zituzten Aramaioko gazteek. Atzo, bestetik, herrialde askotariko musikekin kontzertua egin zuten kultura etxeen.

Joko didaktikoak eta oinentzero bilduma Ikastolen konfederazioaren txokoan

Ikastolen Elkarteak

Aoiz plaza, 1
48015 Bilbao
Tel. 94 435 43 40
www.ikastola.net

> FUTBOLA

Antzuolak eta Bergarak derbia jokatuko dute

Erregional mailako derbia jokatuko dute zapatuan Antzuolak eta Bergarak, Estalau. Antzuolakoak orain hasi dira denboraldiko lehenengo partiduak galtzen, orain arte bikain ibili dira-eta Andoni Azkargortaren mutilak. Bergara, berriz, behetik gora datorren taldea da.

> ATLETISMOA

Oñatiko herri lasterketa, Euskadiko proba onena

Espainiako Atletismo Federazioak erabaki du Oñatiko Herri Lasterketa izan dela Euskadiko proba esanguratsuena, eta Espainia mailan zortzigarrena. Izendapena egiteko, korrikalarien markak edo probaren antzinatasuna modukoak hartzen dituzte kontutan.

> ERRUGBIA

Erakustaldi partiduak antolatu gura dituzte

Ibarrean errugbi talde bakarra dagoela kontuan hartuta, ART taldeak erakustaldi norgehiagokak antolatu gura ditu ibarreko gainontzeko herriean.

Helburua da ibarreko herriean errugbian jokatzeko gertu egongo liratekeen gazteak bilatzea.

> SASKIBALOIA

MUk bi asteko atsedenaldia izango du liga hasi aurrean

Lehenengo itzulia zapore gozoarekin amaitu du Mondragon Unibertsitatea taldeak, eta bigarren itzulia hasi aurrean, Iñaki Merinoren mutilek merezitako atsedenaldia izango dute.

Jokatutako bederatzitik partiduetatik zortzi irabazi ditu Mondragon Unibertsitateak.

> MATERIAL AZOKA

Hilaren 10ean egingo du Pol-Polek mendiko material azoka

Datorren astelehenean, hilaren 10ean egingo du Bergarako Pol-Polek mendi elkartea eskiko eta mendiko material azoka. Aste barruan, 19:00etatik 20:30era arte egongo dute materiala salgai eta hilaren 5ean, zapatuan, 18:00etatik 20:00ak arte egongo dira lanean. Mendi elkartearen egoitzan egingo dute azoka.

PILOTA > DV TXAPELKETA


Ibai Bolinagak eta Aitor Mendizabalek bihar jokatuko dituzte DVko finalerdiak

Urretxun jokatuko dituzte txapelketa horretako finalerdiak, 17:00etan hasita

Mendizabalek 23 urtez azpiko mailan jokatuko du; Bolinagak, berriz, gazte mailan

XABIER URTZELAI > BERGARA
DV txapelketako finalerdieta iritsi dira Aitor Mendizabal antzuolarra eta Ibai Bolinaga arrasatearra. Lehena 23 urtez azpiko kategorian, eta bigarrena gazte mailan. Bi pilotari horiek eskura dute txapelketa finala, baina horretarako, bihar, eguna, Urretxun egongo den txartela poltsikoratu behar (17:00etan hasita).

Binakako norgehiagokan, Aitor Mendizabalek Iñaki Jaurregi izango du lagun. Soraluzeko pilotariak azken urtea du 23 urtez azpiko kategorian, eta dagoeneko Aspe enpresarekin egiten



GURE ORDEZKARIAK Aitor Mendizabal antzuolarra eta Ibai Bolinaga arrasatearra Urretxun lehiatuko dira bihar.

GOIENKARIA

ditu entrenamenduak. Hala, txapelketa eskuratzeko erronka du bikote horrek. Aukera handiak dituzte horretarako, Mendizabal bera ere sasoiko dagoelako; Antzuolakoak asteburuan Egia Txapelketa irabazi izanak erakusten du hori.

BOLINAGA, ESKUETATIK JUSTU

Ibai Bolinaga ere DV Txapelketako finalerdieta raino sailkatu da, eta eskuetatik justu samar badabil ere, Arrasateko erre-kuperatzeko ahaleginetan dabil. Martitzenean bertan pilotaleku joatekoa zen, entrenamendu

saio bat egin, eta pilotak ahalik eta min gutxiengoezko txapak zelan jarri probatzen. Bolinagak Jaunarena pilotari leitzarra izango du lagun, baina Arrasateko jokalari gazteak bera baino bizpahiru urte nagusiagoak diren pilotariak izango ditu aurrean.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Gure Jorge Fernandez hartuko du Bergarak, eta Loiura joango da Ford Mugarri Arrasate

Mahoneroek bi puntura dagoen kontrarioa izango dute zapatuan aurrean

Arrasatekoek Urdaneta mendean hartzen badute, faborea egingo diote Bergarari

X.U. > BERGARA
Euskadiko Txapelketan, Bergarak galduko eman zituen lehenengo lau jardunaldiak, baina bosgarrenean, gutxitatik ez zuten Urdanetaren kantxan ezusteko eman (27-26). Ordutik, partidu batzuetan hobeto eta bestetan okerrago, Bergarak neurria hartu dio Euskadiko Txapelketari. Kategoria eusteko, baina, bide luzea dute oraindik egiteko, eta zapatuan gainditu beharko dute beste koska bat. 18:30ean hasita, Josetxo Muniategiren taldeak atzoko posuetan lehian dabilen kontrario zuzena izango du aurrean: Gure



LABEGARAIETAN Etxeko hirugarren garaipena eskuratu gura dute mahoneroek.

GOIENKARIA

Jorge Fernandez. Talde gasteiztarak Bergarak baino partidu bat gehiago baino ez dute irabazi; era soan azkar jokatzea eta defentsan presioa ondo egitea da bergarakrek duten arma eraginkorrena.


FORD MUGARRIK LOIUN

Arrasateko eskubaloitik taldeak ez ditu Bergarak besteko estutusunak, partidu bat gutxiago jokatuta, Ford Mugarri sailkapenaren erdian dago-eta. Baina, joan

den asteburuan galdua, Balerdiaren eta Fertxuren mutilek garai-pen gosez egingo dute Loiura bidaia (domeka, 13:00). Urdaneta Bergararekin berdinduta dago, launa punturekin.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA




> IZENA
ABIZENA
Txirli oñatiarrak musika eta ordenagailu-diseinu kontuetan jardutea du gustuko; Antton tabernako barraren atzean urtetan egin du lan. > 27



> SAN NIKOLAS
Bi bolo izango dira bihar Arrasaten: 12:00 eta 12:30etan plazan > 31

> 'BERBAIRE'
Julen Iriondok gidatutako saioan kide berriak izango dira > 30




Itxaron beharra ez da itxaropena
Governors / Oihuka

Arrasatearren lehen diskoa.
Euskaraz kantatutako rocka.



10 urte
Des-Kontrol / Baga-Biga

Taldearen ibilbidea laburbiltzen duen DVDA eta bertsioen CDa.



Orroa uraren galerian: Arrikutz
Patxi Zubizarreta / Oñatioko Udala

Arrikutz kobetako bisitan entzuten den ipuinaren liburua.



Azken Guda
Aby-Kem / Goien-G. Hotsak

Bergarakoak. Thrash metal, death eta hardcore ukituekin.



Gose II
Gose / Baga-Biga

Arrasatearrak. Erritmo elektronikoak, trikiti eta gitarrarekin.




Historia baten notak
Juan Luis Bikuña / Bergarako Udala

Bergarako Udal Musika Bandaren 175 urteko historiaren liburua.


Debagoiena ere Durangoko azokan

Denetariko materiala egongo da ikusgai eta erosgai azokan: liburuak, discoak, ipuinak, DVDAk...



Ura Antzuolan
V. Monux, I. R. Okariz / Antzuola

Herriak historian zehar urarekin izan duen harremanari buruzkoa.



Itsasotik Mendira
Juan Carlos Irizar / Ilargi

Oñatiarraren 26. diskoa. Piano doinuekin osatutako 20 kantu.



2008ko Egutegia
Debagune euskara elkartea


Ibarreko irudi zaharren egutegia euskara elkarteen eskutik.



Heriotzari deika

Latzen / Latzen


1995. urtean K7an argitaratutako maketaren berragitalpena.



Numenak Alaba


Julen Rivas, Unai Busturia / Saure

Komikia. Mitologiari buruzkoa. Arrasatearren bigarren atala da.




Elurra
F. Rey, M. Etxeberria / Elkarlanean

Jokin Zaitegi lehiaketan iaz saritutako lana.




Elgetako aditz taulak
Iban Arantza / Badihardugu

Elgetako euskaran batutako aditz taulen zerrenda.



Txilipristin
Juan Carlos Irizar / Itxaropena

Haur kantu eta ipuin bilduma jasotzen duen liburua eta diskoa.



Bidaiaik scriptoriumean zehar
PAUL AUSTER

Paul Austerren lanaren itzulprena. Gizon zahar baten istorioa.



Sagarrak Euzkadin
Gerardo Markuleta / Alberdania

